

“Galdegai” bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I)

Victor Hidalgo Eizagirre
Euskal Filologian Doktorea

Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila, bi zatitan argitaratuko den lanaren lehen atala. *Esaldi luzeen* ordenamendu aukerez dihardugu, aztertuz segmentuen ordena aldaerak duen eragina esaldiaren informazio egitura desberdinak eskaintzeko garaian, eta finean mezu hartzailearentzako mezu desberdinak. Ez da (soilik) euskarari lotutako eztabaida, nahiz euskaraz garatua euskarazko adibideekin. Hizkuntza guztiakin du zerikusia, eta luze hitz egiten da itzulpenaren arazoez. Esaldien informazio egitura aztertzen du intonazio egituraren magalean, oin hartuta, esaldien sortze-kodetze // deskodetze-ulertze prozesuen ulermenean eginiko aurrerabideetan psikologia kognitibo, psikolinguistika eta irakurketaren psikologiaren eskutik. Bigarren atalean *esaldi laburra* jorratuko da.

This is the first part of a work looking for a new perspective around focalization systems and the information structure of sentences: gives us in *long sentences*. I search into the influence different arrangements of sentence segments offer in different sentence information structures, and so finally different messages to the message receiver. It is not (only) a discussion around Basque language, but about language in general, even though it is carried out in Basque language with Basque examples. It also treats related translation problems with some detail. It inquires into sentence information structure from the point of view of intonation systems, relying on the knowledge now we have about sentence coding and production, decoding and understanding by the way of cognitive psychology, psycholinguistics, and psychology of reading. The second part of the work to be published will work on *short sentences*.

0. Sarrera¹

Eman dezagun, testu baten hasieran, beste inolako *testu-aurrerik*² gabe aurkitzen dugula segidako *esaldia*:³

(1) Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.

Esaldi honen *informazio-egituraren* "ohiko" azterketa batek,⁴ zalantza gabe ezarriko dio aditz nagusiaren aurreko osagarriari (*zirkura*) *galdegai* labela.⁵ Aditz ondoko osagarria (*Anerekin*) automatikoki kategorizatu ohi da *mintzagai* bezala (hanpadurarik gabekoa, aditzaren ondorean agertzen delarik). Esaldi hasierako osagarri konplexua, berriz, mendeko esaldi osoa (*eguraldi txarra egiten badu*), era berean aztertzen da *mintzagai* bezala, kasuan hanpatua, galdegaiaren aurretik emana eta honetatik nolabaiteko eten, pausa edo mugaren batez berezia.⁶

Gure lan hau bi ataletan banatu dugu.⁷ Bigarrenean arituko gara (*Informazio unitate baten tamainako esaldi laburrean aurki litezkeen ordenamendu eta informazio-egitura aukerak eta eraginak*) goiko (1) esaldiko *zirkura joango gara Anerekin* atalaren itxurako esaldi laburretan aurki genitzakeen barne ordenamendu eta *informazio-egitura* aukera desberdinez; kasuan aurki genitzakeen 6 ordena permutazio segidakooz:

- (2) a. Zirkura joango gara Anerekin.
b. Anerekin joango gara zirkura.
c. Zirkura Anerekin joango gara.
d. Anerekin zirkura joango gara.
e. Joango gara zirkura Anerekin.
f. Joango gara Anerekin zirkura.

1. Lan hau, besteak beste, burutu ahal izan da Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 1998-99 eta 1999-2000 ikasturteetarako ikertzaileak prestatzeko zabaldutako programetako beka baten bidez. Ikasturte biotan autorea Baionako Euskal Ikasketen Unibertsitate Arteko Sailean aritu da lanean (UPRESA 5478 / CNRS - Université Michel de Montaigne Bordeaux III), Beñat Oihartzabal zuzendariaren gidaritzapean.

2. Lan honetan darabilgun hainbat terminoren definizioa egin nahi izan dugu ondoko glosategian erabilera argitzeko asmoz. Terminook, hasierako zerrendan jasoak, letra etzanetan emango ditugu hasieran behintzat. Zenbaitentzako definizio estandar hutsak jaso ditugu.

3. Berez, ezinezkoa da, ezer, inongo testu-aurrerik gabe aurkitzea. Beti da, gutxieneko, aurretiko egoera bat: esaldia non ematen den, nork, nori, nola, zertarako ... (1) esaldiaren kasuan esan nahi dugu *beste testu-aurre linguistikorik gabe* eta *ahalik eta egoera neutroenean edo*, nola izan litekeen, kasuan, haurrentzako nobela ezezagun, ez autore, ez izenburu, ez argumenturik ezagutzen ez diogun baten hasierako esaldia.

4. *Ohiko* deituko dugu hemen, esateko, Euskaltzaindiaren 1987koa, besterik ez bada eztabaida erreferentzia bat gordetze arren. Galdegaiaren inguruko ohiko ikuspegi kanonikoa, XX. mendean barrena zabaltzen da gure artean, Azkue eta Altuberen joskera ideia berri, gordin eta iraultzaileetatik abiatuta (ik. Hidalgo, 1993; 1996; 2000a).

5. Euskaltzaindia 1987ren kontzeptualizazioan *-mintzagaia +hanpadura*, nahiz bertako *littera*-ri jarraiki, halako osagarri bat era berean azter litekeen hanpadura gabea bezala ere (ik. 46 or.).

6. Euskaltzaindia 1987an (46) badira zalantzak hanpadura horren inguru, aditzaren aurreko osagai beraren balizko hanpadurari lotuak (ik. aurreko oharra).

7. Bigarrena *Uztaro*-ren hurrengo zenbakian argitaratuko da.

Kanon azkue-altubetarrak ordenamendu bakoitza lotu du derrigor informazio-galdegai-egitura bakarrarekin, ordenamendu bakoitzak egitura bakarra eduki leza-keelakoan. Lanaren bigarren atalean zinez eztabaidatuko dugu ikuspegi hori, eta saiatuko erakusten, nola, hitzen ordenamendu bere batek usu eskain ditzakeen euskaraz informazio-egitura desberdinak, estu loturik izanzen duten *testu-aurreari*, eta erakutsiko duten banaketa informatiboari, eta ahozkoan, intonazio eta prosodia aukera desberdinei.

Eta bigarren atalean, *intonazio-informazio unitate* bakar batean eman litezkeen esaldi laburrak eztabaidatuko baditugu, aurretik, lehen atalean ("*Galdegai*" bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez), beste eztabaida arlo bat ireki nahi dugu, are garrantzi handiagokoa izan litekeena, eta orain artean nahiko saihestua eta ahaztua izan dena gaiaren inguruko eztabaidetan.

Izan ere, (1) esaldiko aditz nagusia daraman atal edo *informazio unitateko* ordenamendua, aipatu 6 permutazioetako zeinahi dela ere (ik. (2a-f) aukerak, lanaren 2. atalean eztabaidatuko ditugunak), lehen atalean eztabaidatu nahi ditugu segidako esaldien itxurako pareen arteko desberdintasun informatiboak:

- (3) a. Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.
b. Zirkura joango gara Anerekin eguraldi txarra egiten badu.
- (4) a. Igande arratsalde honetan zirkura joango gara Anerekin.
b. Zirkura joango gara Anerekin igande arratsalde honetan.

Zertan dira berdinak, zertan desberdinak, informazio-egituraren aldetik, (3a) eta (3b), (4a) eta (4b) itxurako esaldiak?⁸

Zinez ustez dugu halako aldaeren arteko desberdintasun informatiboek ezin garrantzi handiagoa dutela, hizkuntza guztietan, ez bakarrik euskaraz, hiztunen arteko komunikazio prozesuan eta komunikazio honen egokitasunean. Azterketa arlo honetatik abiatuta proposatzen da lanean aurrera zenbait idazkera eta itzulpen ondorio praktikoren eztabaida.

1. "Galdegai" bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez

1.0. Laburpen sarrera

Lehen atal oso honen helburu izango da, oinarritzea, zein den (7a) eta (7b) esaldien arteko desberdintasun informatiboa, batik bat, biei tartean kokatu diegun (,) kakotx hipotetiko horren mugan:

8. Lehen atalean (3a) eta (3b)ren itxurako esaldien arteko desberdintasun informatiboaz arituko gara, eta bigarrenean, (5a) eta (5b), edo (6a) eta (6b)ren arteko berezitasunez, bi eztabaida zinez desberdin direlakoan:

- (5) a. Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.
b. Eguraldi txarra egiten badu Anerekin joango gara zirkura.
- (6) a. Zirkura joango gara Anerekin eguraldi txarra egiten badu.
b. Anerekin joango gara zirkura eguraldi txarra egiten badu.

- (7) a. Eguraldi txarra egiten badu(,) zirkura joango gara Anerekin.
b. Zirkura joango gara Anerekin(,) eguraldi txarra egiten badu.

Erakutsi nahi dugu, nola, (7)ko esaldien *mezu hartzaileari*, entzule edo irakurle, muga puntu horretan (,) nabarmen eta erabilgarri izango zaion beti (7a)k (*Eguraldi txarra egiten badu(,) zirkura joango gara Anerekin.*) (8a) predikatzen duela; hau da:

- (8) a. Eguraldi txarra egiten badu ZER GERTATUKO DEN.

Eta aldiz, (7b)k (*Zirkura joango gara Anerekin(,) eguraldi txarra egiten badu.*), guztiz bestela, (8b); ez (8a):

- (8) b. Zirkura joango garela Anerekin BALDIN ETA BALDINTZA ZEHATZ BATZUK BETETZEN BADIRA, eta baldintza horiek ZEIN DIREN.

Bereizketa horrek dakartzan ondorio guztiekin.

1.1. Esaldien antolaketa, intonazio-informazio unitatetan⁹

Orain arteko hitzen ordena eta esaldien informazio-egiturari buruzko eztabaidek, gure artean batez ere galdegaiari buruzkoak, osotasun banaezin bezala begiratu diote esaldiari, arloko arau, lege eta joera guztien aplikazio eremu bezala. Hala suposatu ohi da:

1. Esaldi guztiek dute beren *galdegaia*, edo gutxieneko, *iruzkina*; h.d. esaldian besteen gainera nolerebait azpimarratua gertatzen den osagai, edo osagai bildua.¹⁰ Guk gerok ere oraindik uste horren gainean segitzen dugu jokatzeko, lanean aurrera erakutsiko dugun legean.
2. Esaldi bakoitzak *galdegai* edo *iruzkin* bakarra eduki lezake; beste guztien gainera nabarmenduko duen osagai (edo osagai bildu) bakarra. Ezingo du maila berean azpimarratu osagarri, atal bat, baino gehiago.

Lanaren 2. atalean esaldi laburrak direla eta esango ditugunak gora-behera, lehen atal honetan, batez ere, azken uste –gure ustez– ustel hori nahi dugu eztabaidatu; eta erakutsi, besteak beste, nola, euskaraz ere ezin ohikoagoak ditugun “galdegai” bat baino gehiago darakuskiten esaldiak.

Hel diezaigun gure lehen esaldiari (orain (9)):

- (9) Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.

Hiru osagarri nagusi, *joango gara* aditzaren inguru:

9. 1.1. atal osoa irakurle presatuari teorikoa eta astuna gerta dakioke, eta beharbada pasa liteke zuzenean kalte handirik gabe 1.2. atal praktikoagora.

10. Badira ikerlariak galdegairik gabeko esaldiez mintzo direnak. Ez dirudi inor mintzo denik iruzkinik gabeko esaldiez, *contradictio in terminis* lirakeen *predikaziorik gabeko predikazioez*. Ez dugu *galdegai* / *iruzkin* terminologia eztabaidatuko. Aipatu zentzuan, guk biak erabiliko ditugu gutxi gorabeherako sinonimotzat, lanean barrena justifikatua gertatu behar lukeen modu batean.

0. joango gara
1. eguraldi txarra egiten badu
2. zirkura
3. Anerekin

(9)ren informazio-egiturari begira, denok gatozke bat, honen lehen osagarria (*eguraldi txarra egiten badu* mendeko esaldi osoa) *mintzagai* bezala kalifikatzen. Atala ez da inola ere *galdegai-iruzkina*. Euskaltzaindia 1987k (28) *mintzagai hanpatutzat* hartuko luke osagaia: esaldi hasieran emana; ondoren, galdegai izan litekeen osagaiaren ezkerrean; eta bien artean, pausa, eten, edo nolabaiteko muga erakutsiko lukeelarik esaldiak. Hainbestearinokoa, non testuinguru idatzi batean ez litzatekeen harritzeko izango, hasierako osagarri osoa aurkitzea kakotx ortografikoz berezia ondorengo ataletatik, (10)en erakutsi moduan:

(10) Eguraldi txarra egiten badu, zirkura joango gara Anerekin.

1.1.1. Esaldiko lehen intonazio unitatea

Esaldia ahoz emana izanez gero, kakotx aurreko atalak zalantza gabe osatuko du bere kasako *intonazio unitate* berezitua, esaldi osoak itxuratuko duen intonazio egitura zabalagoaren barne. Eta halako intonazio unitateen ezaugarri izanen da, besteak beste,¹¹ unitate amaierako muga intonazio berezia (beheranzkoa, edo kasuan ia segur, goranzkoa, ↗ zeinuz adieraziko duguna), unitatearen amaiera adierazteaz gain, esaldiaren segida ere iragarriko duena, eta batez ere, artean etortzekoa den esaldiko lehen *predikazio gunea*, esaldia, zentzuz, ezingo baita hor bukatu. *Intonazio unitatearen* mugan, muga intonazio bereziaz gain, maiz aurki liteke pausa ohargarri-neurgarria, unitate mugaren adierazle; eta are maizago intonazio unitatearen azken silabaren luzatze nabarmena, hau ere muga iragarle. Hala transkriba liteke esaldia (11) bezala (intonazio unitateak emanez [] parentesi zuzenen artean):

(11) [Eguraldi txarra egiten badu(↗)] [zirkura joango gara Anerekin.]

Lehen intonazio unitateak, 11 silaba izango ditu ahoskera zainduenean; 9-10 erlaxatuenean; ohiko intonazio unitateen luzera muga berean guti goiti-beheti (ik. glosategia). Osagarriaren barne egiturak (mendeko aditza eta honi estuki lotutako osagarri bakarra), biziki zailtzen du hiztunak atala bi intonazio unitatetan ematea (beti posible bada ere). Are zailago, multzoari esaldi nagusiko beste osagairik eranstea intonazio unitate beraren barne.¹² Pentsa liteke, beraz, *eguraldi txarra egiten badu* bezalako atal bat izan litekeela euskaraz intonazio unitate tipikoa, mezu hartzaileak unitate eta osotasun bezala prozesatu eta ulertua, euskarazko intonazio unitateen ohiko hierarkia prosodiko-intonatibo-predikatiboaren markoan (ik. 1.1.3-4.).

11. Glosategian eman dugu *intonazio unitateen* ezaugarrien definizio zabalagoa.

12. Segidako hitzak (*zirkura* osagarriak) ez du lotura errazik mendeko esaldiarekin eta honek sortutako unibertso predikatiboarekin. Bai, aldiz ondoko aditzarekin (*joango gara*), zeinarekin 8 silabako multzoa osatzen duen (6 ahoskatze erlaxatuenean). Aurreko osagaiaren 11 silabei erantsita, 19 silabako multzoa, arrunt kanpo, fisikoki ere, ohiko intonazio unitateen iraupen-luzera mugetatik.

1.1.2. Esaldiko aditz nagusia daraman intonazio unitateaz

(10) esaldiaren lehen osagaia alde bat utzita (honen intonazio ereduaz diogu zerbait 14. oharrean), zer gertatzen da *zirkura joango gara Anerekin* atalarekin? Ohiko intonazio unitatez dakiguna kontuan hartuta, pentsa liteke bigarren atal oso horrek ere berezko intonazio unitatea osa lezakeela luzerari dagokionez (12 silaba ahoskera zainduenean, 9 erlaxatuenean). Eta luzera aldetik egokia izaki intonazio unitate bakarra osatzeko, eman dezagun oraingo hala osatzen duela (intonazio unitate txikiagoetan erdibitze posible edo arrunten inguruan, eta hauen ahoskatzeaz, ikus 2. atala).

Unitateak osagarri bana du aditzaren ezker-eskuin; eta intonazio unitate bakarrean emana, denok gatozke seguru asko bat, aditzaren aurre-justuko osagarria (*zirkura*) sentitzen esaldiko *gailur predikatibo* bezala. Ohiko ikuspegiak *galdegai* lerrake. Aldiz, aditz nagusiaren ondoko *Anerekin* bezalako osagai laburrak, mintzagaitzat hartu ohi dira (Euskaltzaindia 1987, *mintzagai hanpatu gabe*). Guk nahiagoko dugu hemen *isats predikatibo*z hitz egin (aurrerago arrazoituko dugu aukera).

Baina *mezu hartzaileak*, entzule edo irakurle, bigarren unitatea ere lehena bezalaxe jasoko du, barne eten edo mugarik gabe, instant batean osorik, segundo erdi-oso baten bueltan. Eta euskarazko intonazio unitateen ohiko hierarkia prosodiko-intonatibo-predikatiboaren markoan, osotasun informatibo bezala prozesatu eta ulertuko ditu bere osagai guztiak batera.

Hala jasoko du:

1. *Zirkura* osagaia, eta honek eragindako *unibertso predikatiboa*.
2. *Zirkura joango gara* baieztapena, eta honen *unibertso predikatiboa*.
3. *Anerekin joango gara* baieztapena eta honen unibertso propioa.

Kontua da, beste *testu-aurreren* ezean, hiru osagaiak guztiz berriak izaki mezu hartzailearentzat, semantikoki garrantzi alde handirik gabekoak, hirurek behar luketela garrantzi informatibo-predikatibo bertsua harentzat.

Hala ere, aipatu dugu, esaldia intonazio unitate bakarrean emanda, denok sentitzen ditugu 3 osagaiak hierarkizatuak. Eta garrantzitsuena *zirkura*. Zergatik?

Azaletik bada ere, hurrengo atalean gogoratuko ditugu, *zirkura joango gara Anerekin* bezalako atal baten intonazioaz, gehientsuenok ezagutzen edo intuitzen ditugun kontuak.

1.1.2.1. Esaldiko aditz nagusia daraman unitatearen zenbait intonazio ezaugarriren inguru

1. Halako multzo baten unitate bakarreko intonazioak, unitatearen hasierako osagaian jaso ohi du euskaraz, kasuan aditzaren aurre justukoan, *gailur prosodiko-intonatiboa*: *Zirkura* osagarriak, eta ez beste batek (zehaztasun gehiagorako ik. Elordieta 1998; Hidalgo 2000b).

2. Unitate hasierako osagaiak jaso ohi duen gailentasun prosodiko-intonatibo honen indarrak, euskaraz berez arrastatu ohi du ondotik aditza (aditzik bada unitatean), klitiko modura, gainbehera abiatukotako *isats prosodiko-intonatiboan*, bien arteko etenik gabe, eta tartean beste osagairik eman ezinik (ik., nolanahi, 2.2.3 atala). Fenomenoari euskarazko *aditza-bigarren* (xv/ov) fenomenoa deitu diogu (ik. glosategia), eta ezin garrantzi handiagoa du gure joskera ohituretan (*galdegai lege kanonikoa* bera oinarritu nahi izan da, neurrigabeen, fenomeno honetan).
3. Euskaraz, unitate amaierako osagaiak (*Anerekin*) ez ohi du inolako gailentasun prosodiko-intonatiborik jaso, eta aurreko osagaiaren gainbeherako intonazio segidaren klitiko bezala ahoskatuko da modu atonoan, *isats prosodiko-intonatiboaren* beheranzko amaieran. Eta
4. Intonazio unitatearen amaieran, berriro aurkituko dugu amaierako muga intonazio berezia, kasuan, esaldi eta predikazio osoaren erabateko amaiera iragarritz beheranzkoa izan litekeena (↘).

(12) bezala transkriba genezake esaldia (maiuskula txikitik emanez bigarren unitateko *gailur prosodiko-intonatiboa* jasoko duen osagaia):

(12) [Eguraldi txarra egiten badu(↗)] [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]

Halako kurba bat itxuratuko du:



Intonazioaren gainbehera, unitatearen gailur prosodiko-intonatiboan bertan hasiko da, *nukleoa* duen silaba azentudunaren ondore beretik.¹³

Ezaugarri horiek defini lezakete euskarazko ohiko intonazio unitatearen egitura neutro eta automatikoa.¹⁴

Eta hain zuzen, intonazio unitateen barne aurkezten ari garen hierarkia prosodiko-intonatibo automatiko horixe da mezu hartzaileak jaso eta sentitzen duen *hierarkia*, nolerebait, *predikatiboa*, unitateko osagaien arterako, bestela

13. Kasuan: "zirkura joango gara Anerekin". Edota gaztelaniaz bezala, lehen silaba azentuatuz gero: "zirkura joango gara Anerekin". Ik. zehaztasun gehiagorako Elordieta 1998; Hidalgo 2000b.

14. Automatikotasun horretan oin hartuta, pentsa liteke aztertzen ari garen esaldiko lehen intonazio unitateko lehen osagaiak ere bere unitateko gailur prosodiko-intonatiboa jasoko duela, hortik berriro beheraka abiatuz: [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘(↗)]. Eztabaida xeheagoa beharko du zehazteak *eguraldi txarra* sintagmaren barne, zehatz non kokatzen den gailur prosodiko-intonatiboa (eta beraz nukleoa), izenean ala adjektiboan; edo batzuetan batean eta bestetan bestean. Baita ere, aldeak ote diren euskalki, azpieuskalki, are idiolekto intonatiboan arabera, ... Oraingoz, hipotesi hauek, eta lan osoan zehar intonazioaren inguruan egingo ditugunak, esperimenterik ere frogatu beharko dira, beharrezko bitartekoekin, hauei balio finkoa emateko. Baina badugu dagoeneko nahikoa susmo hipotesi hauek hainbat oinarritutzat jotzeko (ik. Elordieta 1998; Hidalgo 2000b).

predikazio maila bertsukoak direnak (1.1.2.). Intonazio eredu horrek esplikatu du guztion betiko adostasuna halako unitateen barne *hierarkia prosodiko-intonatibo-predikatiboaren* inguru.¹⁵

Aipatu ezaugarrien ingurutik eratorri ohi da euskarazko galdegai egituraren *berezitasunik bereziena* inguruko (vo/vx) hizkuntzen aldean:¹⁶ *gure aditz aurre-justuko gunearen ustezko "galdegaitasuna"*.

Ezaugarriok, ordea, *euskarazko intonazio unitateen berezitasunez* dihardute (bereziak, segur, inguruko vo/vx hizkuntzetakoen aldean; euskara ov/vx itxurakoa izaki); ez dihardute *euskal esaldiaren informazio-egituraz*, biek zerikusia estua bada ere (bereziki intonazio unitate bakarrean emaniko esaldi laburretan; ik. 2. atala).

Aurrerantzean garrantzizkoa da ikas dezagun bi esparru desberdin bezala bereizten, intonazio unitateen ezaugarri prosodiko-intonatiboak, eta esaldien informazio-egitura (*zeri buruz zer, mintzagai-galdegai* egitura), ondoko eztabaidan argitzen saiatuko garen eran.

1.1.3. Intonazio unitate, informazio unitate

Bi intonazio unitate desberdinetan emanak, [*Eguraldi txarra egiten badu*] [*zirkura joango gara Anerekin*] itxurako esaldiek, aspaldi postulatu ohi da, bi *informazio unitate* osatzen dituztela, ez bakarra. Mezu emaileak bi informazio unitatetan ematen ditu ahoz, eta batez ere, mezu hartzaileak bi unitate desberdinetan jasotzen ditu, entzunez zein irakurriz.¹⁷

Mezu emailearentzat, hiztunarentzat, ez esaldien kodetze prozesuak, ez hauen transmisiokoak, ez dira denborarik eramaten ez dioten debaldeko prozesuak.¹⁸ Hiztunak, mezua ematen hasi aurretik, badu eman nahi duen esaldi-predikazio haren ideia global bat nonbait. Lehenik, esaldiaren gutxi gorabeherako eduki semantikoa; ondoren, honen hezurdura sintaktiko posible bat, elementuen funtzioak zehaztuz, gero eta lexikoki zehaztenago joango den aditz nagusi baten inguruan gauzatua.

Gurea bezalako esaldi bat bi intonazio unitatetan emateko, hiztunak ez ditu hitz egiten hasi aurretik bi unitateak osorik kodetuko azken xehetasun lexiko eta fonetikoetaraino, gero hasteko bata bestearen ondoren ematen. Azken hamarka-

15. Noski, ez da elementu prosodiko-intonatibo hori osagaien arteko hierarkia predikatiboa inposatzen duen aldagai bakarra; eta seguru asko ahulena baino ez. Garrantzi gehiagokoa izango da osagaien testu-aurrearekiko mendekotasun eta *iragargarritasun* maila. Soilik iragargarritasun maila bertsu baten aurrean nabarmenduko da intonazioaren edo ordenamenduaren garrantzia (ik. 1.2.4.).

16. Ik. glosategian *aditza-bigarren fenomeno* euskaraz.

17. Halliday 1967 izango da seguru asko lehena intonazio unitate eta informazio unitateen arteko identifikazioa agerian postulatzen. Baina badira aurretiko edo garai bertsuko zenbait lan psikolinguistikaren inguruan antzeko bideak jorratzen dituztenak (bibliografian aipatzen ditugu Boomer, Dittman eta Llewellyn edota Laver-enak, esateko).

18. Psikolinguistika eta psikologia kognitiboaren inguruan ikus litezke esaldien sortze eta entzute, irakurtze, ulertze prozesuen inguruan, beste askoren artean, bibliografian aipatu: Clark & Clark 1977; Levelt 1989 (1995); Singer 1990; Gathercole & Baddeley 1994; Chafe 1994; Gernsbacher 1994; Clark 1996; edota berrikiago Baddeley 1999n esaten direnak. Baita ere Meyer 1996, edota Garrett-en lanak. Gaztelaniaz ikus liteke maila batean De Vega-Cuetos 1999. Psikologia kognitiboaren ingurutik: Eysenck-Keane 1995; Sternberg 1996; Haberlandt 1997; Medin-Ross 1997.

detako esperimentazio psikolinguistikoan oinarrituta, badirudi hiztunak, soilik lehen intonazio unitatean-edo eman behar duen materiala kodetzen duela xehe hitz egiten hasteko. Eta unitatea kodetua uste duen orduko hasten dela hau ahoskatzen, ondoko unitateen kodetzeari itxaron gabe. Kodetze lanok lehen unitatea ahoskatzeko ari den bitartean burutuko ditu, edo tartetean eragindako pausetan. Hiztunak, beraz, behin esaldiaren hezurdura sintaktikoa irudikatua duen orduko erabaki beharko du zein intonazio unitateetik hasi esaldia, nahiz artean erabat erabakia izan ez zein izan litekeen ondoko unitateen ordena.

Entzuleak beste gabe, inkontzienteki daki hiztunak intonazio unitate fisiko eta ohargarri batean emandako esaldi atal huraxe dela honek bere mezua zabaltzeko esaldiko informazioa zatitu eta kodetu behar izan dueneko unitateetako bat. Hau da, intonazio unitatea era berean dela *hiztunaren informazio kodetze unitate*, zentzu multzo, *informazio unitate*.

Hiztunak, intonazio-informazio unitatea ahoskatzean, muga intonazio berezia erants diezaioke (euskaraz, 1.1.2.n aipatu moduan), eta batera eman aditzera unitatearen amaiera eta honen balio informatiboa, hau da, unitatea:

1. *Predikazio marko* soila den -PM-, esaldia, zentzuz, bertan amaitu ezin bada, amaierako ohiko ↘ beheranzko intonazioaren ondoren, ↗ goranzko intonazioz adierazi ohi dena agerian -ez beti-, etortzeko d(ir)en predikazio gune(ar)en iragarle. Edo
2. *Predikazio gune* den -PG-, mami emaille, esaldia, zentzuz, bertan buka baliteke, ↘ beheranzko intonazio soilez adierazia esaldi deklaratzailan,¹⁹ berriro irabaz balezake ere goranzko tonua ↗, diskurtsoaren jarraipena aldarrikatuz artean, dela esaldian bertan (*predikazio gune* berriak iragarritz), dela ondoko esaldi beregain independentetean.

Unitate amaierako intonazioaren bidez esaldien informazio-egituraren berri ere ematen delarik, intonazio unitatea agerian bihurtzen da *informazio unitate*. Eta hala jasoko du entzuleak (12)ko predikazioa, [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↗]_{PM} [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]_{PG}, ez bakarrik bi intonazio unitatetan emana, baizik bi *informazio unitate* ongi berezituetan ere bai (PM+PG). Lehen unitatearen zentzu oso faltak eta goranzko muga intonazioak iragarriko diote artean etortzeko d(ir)ela esaldiko predikazio gunea(k). Bigarrenaren beheranzko muga intonazio soilak iragarriko dio (zentzu osotasunarekin batera) unitate hau dela esaldiko (azken) predikazio gunea.

1.1.4. *Informazio unitateak, irakurketan ere*

Ahozko hizkera baino ez dugu aipatu hona arte.²⁰ Zer gertatzen da testu idatzietan? Ba al dute testu idatzian parerik, ahozkoan aurkitu ditugun intonazio-informazio unitateek?

19. Bestelako intonazioz ere agian galdera bada, zati-galdera, agindu, harridura, zalantza, ...

20. Eta nik hartu nahi dut kontuan gaur egungo euskara estandar idatzia. Zergatik erakusten dituzte, oro har, horren komunikazio arazo larriak gure gaur egungo testu idatziek, XX. mendera bitarteko testuek ez bezala? Zergatik gertatu ohi dira maiz artifizial eta aldrebesak azpian testu idatzia duten ahozko jardunak? Zergatik irakurri behar ditugu esaldi luze guztiak bi edo hiru bider ulertzeko?

Ez gara arituko idazleak folio zuriaren aurrean jasan ohi dituen buruhausteez. Idazleak ez du hiztunaren denbora premiarik esaldia mezu hartzailearen aurrez aurre osatzeko. Orduak egin ditzake esaldi bakarraren aurrean diskisiziotan. Eta azkenik idatzia, izan liteke mila ezabatze, aldatze, atze-aurreratze azter gaitzen fruitu. Ez gara prozesu horietan sartuko.

Irakurketa bestelakoa da eta idazleak irakurketa eduki behar du kontuan bere esaldiak josterakoan. Irakurleak ere mila bider irakur lezake esaldi bakoitza eta jardun haren gainean hausnarrean. Ez da hori irakurlearen nahia. Idazleak horretara behartzen badu, laster aspertuko du irakurlea, nazkatu eta testua utzaraziko. Irakurketako mezu deskodetze-ulertze prozesuak baditu ezaugarri aztergarri eta interesgarriak.

Irakurleak, hiztunak eta entzuleak bezala, ez ditu esaldiak osorik begi sakada bakarren jasotzen, ez deskodetzen, ez ulertzen. Zatika baina. Eta aldiko ez da jabetzen oso unitate laburrez baino, fisikoki ondo mugatuez, nori gure esperientzia propioak ere erraz erakuts diezagukeen moduan.

Badirudi,²¹ irakurleak lehen begi sakada batean 20 bat karaktere idatzizko multzoa ikusten duela, begiradaren finkatze puntua duenaren inguru (4 karaktere ezker; 14-15 eskuin),²² 7-8-10 silabako multzoak (gutxi goiti-beheiti ohiko intonazio-informazio unitateen neurrira).

Irakurleok, nolana, ez omen dugu, ezin omen dugu, lehen begiratu zabal hau erabili 20 karaktere horien mezua osorik deskodetzeko, baizik eta soilik atal horren muga sintaktikoak eta informatiboak identifikatzeko. Hau da, batetik, sintagma gramatikalak mugatzeko, eta bestetik, ahozkoan jasoko genituzkeen balizko intonazio-informazio unitateen muga hipotetiko batzuk finkatzeko. Eta ahozkoaren intonazio indikazio agerikoen ezean, irakurlea beste seinale batzuen bila abiatuko da (puntuazioa; sintagma gramatikal bakoitzaren ondoko sintagmaren ezaugarriak; ...), jakiteko, sintagma horiek intonazio-informazio unitatearen kanpo edo barne doazen.

Lehen diskriminazio-lan, finezia handirik gabeko, eta garrantzizko hau eginda, badirudi irakurleok 7-8-9 karaktereren gainean finkatzen dugula begirada zorrotzagoa (3-4 karaktere finkatze gunez ezker-eskuin), zatietako bakoitza, orduan bai, osorik eta erabat deskodetzeko

Lehen bi irakurraldiotan, karaktere bakoitza erreskadako bi begi astindutan ikusi-irakurriko genuke (zenbaitzuk 3 bider). Eta artean, begi tinkatze sendo horien ondoren ere, emango dira tarteka atzerantzko begi sakada berri arinak, irakurriaren integrazio oso baten bila. Batez beste, begirada guztien iraupena silaba bakoitzaren gainean 52 milisegundoren bueltakoa izan liteke (0,052 seg.; Zagar, 28), nahiz zenbait esperimintutan hainbat haz litekeen denbora hori (Zagar, 37). Irakurketak ahoskatzearen denboraren erdia edo beharko luke.

21. Azken hamarkadotan irakurketaren ulertze eta deskodetze prozesuen inguruan ikus litezke, besteak beste, bibliografian aipatu: Coltheart 1987; Rayner & Pollatsek 1989; Balota (eta beste) 1990; Fayol (eta beste) 1992; edota Zagar 1992.

22. Ezkerretik eskuinera eta karaktere latinoetan irakurtzen dugunontzat. Alderantziz, eskuinetik ezkerrean (eta karaktere nolerebait fonetikoetan) irakurtzen dutenentzat, hebraiera kasu. Ez dugu antzeko esperimintaziorik ezagutzen ideogramatan-edo idazten diren hizkuntzatan.

Irakurlea, zatika irakurtzen, irakurri ahala saiatuko da irakurriarekin unitate handiagoak osatzen eta hauek ulertzen: karaktereekin silabak, silabekin morfemak, eta morfemekin hitz eta sintagma gramatikalak, hauek gero informazio unitate hipotetikoetan lotzeko, eta azkenik esaldi osoaren egitura osatzeko. Esan ohi da irakurlea, ustekabean bada ere, beti saiatzen dela irakurketan ahozko balizko diskurtsoa itxuratzen, nahiz prozesua hainbat ustekabeagoa gertatu, zenbat eta irakurtzeko ohitura handiagoa izan irakurleak.

Prozesu guztiok esperimenta genitzake nork geure irakurketan. Hala nola gorago aipatu aho hizkeraren ingurukoak, nork bere hizketan eta besteena entzuten. Eta irakurketa eta entzuketaren fisika horretan aurrera jabe gintezke esaldien deskodetze prozesuan gertatzen direnez. Horien gainean dihardugu hurrengo atalean.

1.1.5. Esaldien deskodetzea atalka, esaldia amaitu baino lehenagotik

Mezu emaileak esaldiaren kodifikazio lexiko eta fonetiko osoari itxaroten ez dion bezala esaldiko lehen informazio unitateak ahoskatzen hasteko, mezu hartzaileak ez dio itxaroten esaldi osoa irakurtze-entzuteari, honen atalak, lehen informazio unitateak deskodetzen eta ulertzen hasteko.

Hori frogatzen da hizkuntzetan barrena *garden path*²³ itxurako esaldi jokoekin eginiko hainbat esperimentutan. Halakoetan irakurleak nabarmen erakusten du esaldi amaiera aurretik ere ongi eginga duela jada esaldiaren ordura arteko esanahiaren interpretazio hipotetiko bat, esaldiak aurrera egin ahala oker bihurtuko zaiena, jada prozesatutako esaldi atalei emandako interpretazio ez-zuzenaren ondorioz. Euskaraz ere hala gerta liteke, esateko, irakurketan nahasten ditugunean lehen aldiko adizki nagusiak eta erlatibo atzizkidunak. Adibide, halako interpretazio nahasteetara eraman gaitzake segidako esaldi pareak, biak ere *Jonek dirua eman behar izan zion gizonari ... segidaz hasiak*:

- (13) a. Jonek dirua eman behar izan zion gizonari nahi zuenean gasta zezan.
b. Jonek dirua eman behar izan zion gizonari ez zitzaion gehiegi gustatu hau eskaintzeko izan zuen modua.

Bigarren esaldiaren lehen irakurketak seguru asko eraman gaitu denok *eman behar izan zion* aditza nagusizat interpretatu nahi izatera. Ondoko segidaz jabetu garen orduko (... *gizonari ez zitzaion gehiegi gustatu ...*) aldatu behar izan dugu interpretazioa, esaldiaren amaierari itxaron beharrik gabe, hasierako interpretazioa, jada eginga genuena, bateraezina bihurtu den neurrian esaldiaren jarraipenarekin.²⁴

Mezu hartzaileak ez dio esaldi amaierari itxaroten informazioa prozesatzen hasteko. Prozesatzea, entzuten-irakurtzen duen lehen fonema-karaktere beretik hasten du, fonema eta karaktereak elkarri lotuz silabak osatzeko, morfemak, hitz eta sintagma gramatikalak, eta informazio unitateak. Eta hona bitarteko prozesua,

23. *Irteerarik gabeko bidexka* edo esanahikoa.

24. *Garden path*-en inguruko esperimentuei buruzko informazioa nahikoa zabala da hizkuntzaren psikologiaren inguruko aipatu lanetan. Besteak beste, Clark & Clark 1977 klasikoan, edota Pritchett 1988 aipatzen; baita ere Zagar 1992, edo Garrett 1992b.

ia instantanea da (segundo baten bueltakoa ahozkoan; erdia irakurketan), barne muga eta eten fisikorik gabea.²⁵ Eta hori guztia ere garrantzizkoa da.

Hortik aurrera, mezu hartzaileak, fonema-karaktere-silaba-morfema-hitz-sintagma-informazio-unitate berriak identifikatzeko lanaz gain, informazio unitatearen muga seinaleak jaso orduko, hasiko du unitateko informazio hori kontrastatzeko ahalegina, anar-tean *testu-aurreari* esker barrendua duen solasaren unibertsoan. Eta hau eginda, solasaren unibertso bera berrituko du, espektatiba berriak gauzatuz, hurrengo sintagmak eta informazio unitate berriak deskodetzen lagunduko diotenak. Gauza bera egingo du esaldi mailan hau amaitzearekin.

Erabilitako deskodetze unitate bakarra ez izanda ere, mezu hartzaileak, entzule edo irakurle, intonazio-informazio unitateak (ere) erabiltzen ditu deskodetze unitate gisa, itxaron beharrik gabe esaldi amaierari. Eta hori garrantzizkoa da gure auzian, ikusiko dugun moduan.

1.2. *Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin esaldiak, zer predikatzen du?*

Hainbesteko itzulgingururen ondoren, goazen berriro hasierako esaldira (hemen berriro errepikatua):

(14) [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘(↗)] [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]

1.1. atalean haizatu arrazioen haritik, (14) bezalako esaldi bat entzun edo irakurtzerakoan, mezu hartzaileak ez dio itxarongo esaldi osoa jasotzeari informazioa deskodetzen eta prozesatzen hasteko. Eta prozesatzea, lehen fonema-karaktere beretik hasiko duen arren, intonazio-informazio unitateka ere egingo du prozesatzea. Lehendabizi (14)ren lehen informazio unitatea deskodetuko du eta informazio unitate bezala prozesatuko. Unitate honen gainean eraikiko du solas-espektatiba unibertso berria, zeinarekin kontrastatu gero ondoko unitate(eta)ko predikazioa.

Mezu hartzaileak garbi jasoko du intonazio-informazio unitatearen muga seinalea *egiten badu* aditzaren ondoren. Entzunez, pausa, azken silabaren luzatze edota ↘(↗) muga intonazio bidez. Idatziz, kaxotx bitartez. Baina are seinale ageririk gabe ere, berezko euskal hitzun “sena” erabiliz.²⁶ Orduantxe amaituko du unitatearen balio informatiboaren prozesatzea itxaron beharrik gabe, eta “orduantxe ulertuko du” *eguraldi txarra egiten badu*-ren “esanahi baldintzatzailea”.

Beste *testu-aurre* aproposik gabe, zerekin kontrastatu jasotako informazioa (nobela ezezagunaren hasierako esaldi), mezu hartzaile euskaldunak bertan ulertuko du mezu zati hori ez dela, ezin dela izan, mezu emaileak transmititu nahi dion proposizioaren muina. Ez dela *predikazio gune* -PG-; baizik eta ondoko informazio unitate(et)an etorri beharko du(t)en predikazio gune(ar)en ingurumari

25. Ahozkoan bederen. Idatzian zoriez hitzak aparte idazteko oohituragordetugugauregunirakurketa erraztendigulakoan bainanorkdakizergertalitekeen horrela irakurtzen ohitukobagina.

26. Ze, bere lehen begi bistadizo diskriminatzailea jartzen duen orduko *egiten badu* aditzaren ondoko *zirkura* osagarrian (eta areago ondorengo *joango gara* aditzean), konturatuko da hauen 8 silabek ez dutenez lotura logiko zuzenik aurreko sintagmako 11 silabekin; eta denera, multzo bateratua ohiko intonazio-informazio unitateen luzera mugetatik kanpo legokeenez ere bai.

soila baino ez, har/hauen *predikazio markoa* -PM-. Ahoz, amaigabetasun ideia hori indartuko luke unitateari erantsitako \nearrow goranzko muga intonazioak. Idatzian, kakotxak (inoiz beste zeinuren batek). Baina, ez bat, ez beste dira ezinbesteko. Mezu hartzailearen hitzun senak beste gabe igarriko du esaldiaren amaiezintasuna unitateen arteko muga horretan.

Mezu hartzaileak, informazio unitate berria jaso aurretik ekingo dio espektatiba unibertso berria eraikitzeari, oinarri bezala erabiliko duena ondoko unitateak behar bezala prozesatu eta ulertu ahal izateko. Espektatiba unibertso hori, kasuan, horrelako zerbait izan liteke: *Ondo da. Jadaneke badakit baldintza bat jarri dela, eta baldintza hori "eguraldi txarra egiten badu" dela. Eta hala, ba, eguraldi txarra egiten badu (hau jada badakit), ZER? ZER GERTA LITEKE? ZER GERTATUKO DA?*

Eta horixe izango da (14) esaldiak, bi informazio unitateen arteko muga horretatik aurrera predikatuko diona:

(15) ZER GERTATUKO DEN eguraldi txarra egiten badu.

Eta hobeto esanda, eta esaldiaren prozesamendu ordena hurbilagotik jarraikiz:

(16) Eguraldi txarra egiten badu, ZER GERTATUKO DEN.

Hori da (14) esaldiak puntu horretatik aurrera kontaktzen duena. Ez besterik. Eta mezu hartzaileak informazio hori jasotzeko esperantza izango du ondoko informazio unitate(et)an. Garrantzi handikoa horretaz jabetzea gure auzian, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

1.2.1. Informazio unitateen arteko ordena aldaketaren eraginaz

Lehen ataleko eztabaida muinean sartzeko: Zer gertatuko da gure esaldia (14) ez, baina oso antzeko (17) balitz? (berau ere nobela ezezagunaren hasierako; bien arteko aldea informazio unitateen ordena).

(17) Zirkura joango gara Anerekin eguraldi txarra egiten badu.

Zein da (17)ren informazio-intonazio egitura? Azterketa kanonikoak, berriro, aditzaren aurreko osagarriari ezarriko dio "galdegai" etiketa (*zirkura*). Aditz ondoko bi osagarri nagusiei, berriz (*Anerekin* eta *eguraldi txarra egiten badu* mendeko esaldiari), *mintzagai hanpatu gabe* labela, (14)n soilik *Anerekin* osagarriari ezartzen zitzaiona.

Gure ustez azken juzku hau kezkatzeoago da (*aditz ondoko bi osagarrien balizko mintzagaitasuna*), hasierako galdegaiari buruzkoa baino. Honek nahasten du bereziki gure esaldiaren informazio-egituraren gaineko pertzepzioa, segidan azaltzen saiatuko garen harian.

Zein intonazio-informazio egitura du (17)k? 23 silabako esaldia, nahita ere intonazio unitate bakarrean eman ezinezkoa berriro. Unitate txikiagotan banatuko da. Eta besterik eta nahasiagorik gerta litekeen arren (ikus 2. atala), eman

dezagun esaldia bitan bereizten duela hiztunak eta jasotzen entzule-irakurleak, (14)n emandako unitateen pareko (tarteko kakotxa gorabehera idatzian):

(18) [Zirkura joango gara Anerekin(,)] [eguraldi txarra egiten badu.]

Kakotxa espresa, irakurleak ez du zalantzarik jakiteko datorkiona informazio unitate berri baten parte dela. Kakotxiak gabe ere, hiztun senak erakutsiko dio, lehen irakurketa diskriminatzailean, lehen unitatean irakurri dituen 12 silaba / 28 karaktereen ondoren, euskaraz ez dela arrunta (ezinezkoa ere bai) informazio-intonazio unitate bere batean ematea *eguraldi txarra* bezalako 6 silabako osagarri bat, aurreko 3 osagaiekin lotura logiko zuzenik gabea, eta ondoretik bere lotura logikoa den beste 5 silabako *egiten badu* aditza duela. Eman dezagun, bada, irakurleak ere identifikatzen duela, nolerebait, informazio unitate muga, kakotxa azal litekeen tarte horretan.²⁷

Mezu hartzaileak, berriro, lehen atala deskodetuko du lehenbizi, eta ulertuko *zirkura joango garela Anerekin*, hiru osagaiak dituelarik maila berean berri eta predikatibo (1.1.2.), segundo baten (edo erdiren) bueltan, eta tarteko etenik gabe ahozkoan.²⁸ Mezu hartzaileak, nolana, euskarazko ohiko intonazio joeren eraginez (1.1.2.1.), eta irakurleak ere intonazio hau irudikatuz, bertatik jakingo du unitate hasierako osagarriak jasoko duela euskaraz unitateko *gailur prosodiko-intonatiboa* (nolabaiteko *gailentasun predikatiboa* ere bai hala), eta gailur honi atxikiko zaiola estuki, beheanzko *isats prosodiko-intonatiboa* (nolabaiteko *isats predikatiboa* ere bai beraz), unitateko aditza.²⁹ Are *Anerekin* bezalako osagarri ez luzeegi bat ere. Beste hainbeste, bigarren unitatean. Euskarazko intonazio egitura automatikoa:

(19) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]³⁰ [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘]

Galdera da, lehen informazio unitate horrek ase ote litzakeen mezu hartzaileak une horretan dituen espektatiba predikatiboak; senti ote lezakeen unitatea *predikazio gune* -PG-, oso bezala. Eta kasuan, beste *testu-aurrerik* gabe, osagai guztiak maila berean berri, ezezagun, iragarrezin, erraz izan liteke *Zirkura joango gara Anerekin* bezalako unitate bat, esaldi, predikazio oso. Arazorik gabe amai liteke esaldia bertan. Unitatea *predikazio gune* -PG- izango da beraz, nahiz mezu hartzaileak jakin esaldiak (edo diskurtsoak) artean izan lezakeela jarraipenik.

Zein espektatiba unibertso eraikitzen dio unitateak mezu hartzaileari, esaldi bereko edo beste bateko ondoko informazio unitateak prozesatzean erabiltzeko? Halakoa izan liteke: *Ondo da, bai. Jadaneko badakit zirkura joango garela (edo zaretela) Anerekin, baina beste gauza asko geratzen zait jakiteko gertaeraren*

27. Areago kontuan izaki lehen informazio unitatean esaldiko aditz nagusia ematen dela honen bi osagarri garrantzizkoekin batera. Izatez gerotan, irakurleak zalantza izan lezake, jakiteko, ea ondoretik datorkion unitate hori esaldi beraren parte den, edota esaldi berri batena (*Zirkura joango gara Anerekin, eta oso ondo pasatuko dugu* bezalako esaldi katean legez).

28. Mezu hartzaileak, beraz, berriro osotasun modura jasoko ditu nolabait *Zirkura* osagaia eta *Zirkura joango gara, Anerekin joango gara* baieztapenak, eta denek eragindako unibertsoak.

29. Aipatu euskarazko *aditza-bigarren* fenomenoaren kariaz.

30. Lehen unitatearen beheanzko muga tonu ohikoari beharbada erants lekioko (↗) goranzko tonua (ez derrigorrez), predikazioaren jarraipena iragarritz esaldi berean edo ondoko batean.

inguru: NOIZ, NOLA, NONDIK, ZEIN ZIRKURA, ZERGATIK, edo ZEIN BALDINTZATAN joango garen (zareten) bezalako kontuak; eta nolana, ZER? Horren inguruan ZER? Edo GERO ZER GERTATUKO DA, edo ZER GERTA LITEKE?

Lehen informazio unitateak, nahiz osotasun bat erakutsi eta PGA osatu, (14)ko lehen informazio unitateak egiten ez zuena, artean argitu gabe uzten du inkognita ugari, beharbada ondoko diskurtsoan ebatz litekeena (edo ez; ez baita beharrezko guztia agerian ebatzea). Baina ebatzter gerotan, ebatz litezke esaldi berean, edota hurrengo esaldi(et)an. Kasuan, mezu emailak esaldian bertan ebatzea erabaki du inkognitetakoren bat. Eta horren berri izango du entzuleak, unitatearen amaieran beharrezko tonua jasotzeaz gain goranzkoa ere jasotzen badu. Irakurleak ere, unitate amaieran puntuazio zeinurik aurkitzen ez badu, edota aurkitzen duenak jarraipena adieraz baliezaio –koma, edo honen ordezkorik–.

Bigarren informazio unitatea (*eguraldi txarra egiten badu*) jasotzean ulertuko du mezu hartzaileak, honek lehen unitateak eskegirik utzitako inkogniteta bat ebatzen diola esaldi berean: *ZEIN BALDINTZATAN gertatuko den berak jada ezagutzen duen iragarpena (Anerekin zirkura joatearena)*.

Beraz, bi unitateen arteko mugan, lehen informazio unitatea prozesatu ondoren, (18, 19) esaldiaren mezua ez da jada inola ere izango (15, 16)koa (*Eguraldi txarra egiten badu ZER GERTATUKO DEN*), baizik eta (20, 21)ekoa:

(20) *ZEIN BALDINTZATAN gertatuko den Anerekin zirkura joatearena.*

Edo hobeto, esaldiaren prozesatze ordena jarraikiz:

(21) *Zirkura joango garela Anerekin (BAKARRIK?) BALDINTZA ZEHATZ BATZUETAN, eta hain zuzen, baldintza horiek ZEIN DIREN.*

Ezin garrantzi handiagokoa. Garrantzi gehiegikoa (18, 19) esaldietako bigarren informazio unitatea (*eguraldi ona egiten badu*) besterik gabe kategorizatzeo *mintzagai hanpatu gabe* bezala, atal berari, esaldiaren hasieran emana aitortzen zitzaion *mintzagai hanpatu* kategoriaren azpitiko besteren batean. Ez da horrela.

Predikazioaren puntu honetan, lehen informazio unitatearen ondoren, *eguraldi txarra egiten badu* atala bihurtuko da esaldiaren *predikazio gune berria*, esaldiko *bigarrena* (hor ere, esaldia osatua sentituko baitu mezu hartzaileak). Askoz garrantzi predikatibo handiagokoa, aurreko unitateko isats prosodiko-intonatibo-predikatiboan emana zihoan *Anerekin* osagaia baino. Ez alferrik du unitate berriak gailur prosodiko-intonatibo-predikatibo propioa (*eguraldi txarra* osagaia, isats bezala baldintzazko aditza arrastatzen duena). Gailur berria lehen unitateko *zirkura* baino gailentasun apalagoz senti liteke, hura bezain gailen, edota are gailenago, *testu-aurre* zehatzen baitan, eta hiztunak erabilitako enfasi errekurtsoen arabera.

Bestalde, ez da zuzen konparagarria unitateak esaldi hasieran jokatzen zuen *predikazio marko* papera, orain esaldi amaieran jokatzen duen *predikazio gune*-arenarekin. Hurrengo ataletan saiatuko gara zer edo zer argitzen kontu hauek.

Ondorio nagusia da gure oinarrizko bi esaldiek (hemen errepikatuak),

(22) Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.

(23) Zirkura joango gara Anerekin eguraldi txarra egiten badu.

ez dutela inondik ere informazio bera ematen, ez diotela gauza bera predikatzen mezu hartzaileari esaldien deskodetze bidean, nahiz esaldien proposizio logikoak finean bere batzuk izan.

Bi esaldiek balio informatibo bera eduki lezaten, suposatu beharko litzateke, maiz eta oker egin ohi den bezala, mezu hartzaileak esaldiaren amaierari itxaroten diola dena batera prozesatzen hasteko. Hala balitz, mezu hartzailea modu bertsuan jabetuko litzateke bi esaldien informazioaz, zeinahi ordenamendutan ere. Baina hala ez bada, dirudien bezala, uste beharko, mezu hartzaileak mezu desberdinak jasotzen dituela bi esaldietan.

1.2.2. Predikazio guneen ondorengo informazio unitatearen balio informatibo / predikatiboa

Zirkura joango gara Anerekin bezalako informazio unitate bat, berez izan liteke, beraz, *predikazio gune beregaina*, bere horretan izan litekeelako *esaldi oso*. Eta eman dezagun orain esaldi oso dela, (24)n bezala:

(24) Zirkura joango gara Anerekin. Baina joango gara eguraldi txarra egiten badu.

Mezu hartzaileak lehen esaldia jaso eta prozesatu orduko bihurtuko du ezagun, eman, zahar, etorriko diren informazio unitateen *testu-aurre*, zeinen gainean segituko duten predikatzen ondoko esaldiek, nola (24)ko bigarrenak, zeinak predikazio berria ematen duen, bi informazio unitatetan banatua: lehena *predikazio marko soil* (PM), bigarrena *predikazio gune* (PG):

(25) [*↗*Baina joango gara↘*↗*]_{PM}³¹ [*↗*EGURALDI TXARRA egiten badu↘]_{PG}

Ez dela beste ezer gertatzen aztertzen gentozen esaldiko bigarren unitatearekin, segidako moduan:

(26) [*↗*ZIRKURA joango gara Anerekin↘(*↗*?)]_{PG} [*↗*EGURALDI TXARRA egiten badu↘]_{PG}

non, mezu hartzaileak, (24)n bezala, lehen informazio unitatea, berezko predikazio gunea (PG) jaso orduko bihurtzen duen ezagun, eman, zahar, ondoko informazio unitate berrien *testu-aurre*, zeinen gainean predikatuko den handik aurrera. Bigarren unitatea, (24)n bezalaxe bihurtzen da predikazio gune berri, aurrekoaren gainean eraikia.

31. Ez dugu eztabaidatuko hemen lehen unitate honen barne egitura prosodiko-intonatibo-predikatiboa. Aipatu soilik, nola hasierako gorakada eta amaierako beheakadaren ondoren, ia ziur izango duen testuinguru horretan goranzko muga tonua ↗, ondoko predikazio gunearen iragarle.

(26)k bi predikazio gune ditu esaldi beraren barne (bi “galdegai”, nolerebait esan). Mezu hartzailea bi aldiz sentituko da ase, bi aldiz sentituko baitu esaldiaren osotasuna, (24)ko bi esaldietan bezala. Aldiz, *Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin* esaldiak ez du predikazio gune bakarria baino osatuko, mezu hartzaileak ez baitu behin baino sentituko esaldia osatua (amaieran). Hala, euskaraz (ere) posible da predikazio gune bat baino gehiago erakusten duten esaldiak izatea (“galdegai” bat baino gehiago). Eta hori, biziki garrantzitsua da, ikusiko dugun bezala.

1.2.2.1. Adibide berria

Aurkeztu arrazoibideak ez du zerikusirik informazio-intonazio unitate bezala mendeko esaldi bat erabiltzearekin. Egoera bera aurkituko dugu unitatea beste zeinahi osagarrik osatuta ere, (27a, b)ko itxuran:

- (27) a. Igande arratsalde honetan zirkura joango gara Anerekin.
b. Zirkura joango gara Anerekin igande arratsalde honetan.

zeinak berriro bina informazio unitatetan banatuak, bigarrenak bi predikazio gune (PG) osatuko dituen, eta lehenak bakarria, honen lehen unitatea *predikazio marko* baino ezin izaki (PM):

- (28) a. [↗IGANDE arratsalde honetan↘(↗)]_{PM} [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘]_{PG}
b. [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} [↗IGANDE arratsalde honetan↘]_{PG}

(28a)k bi informazio unitateen arteko muga (29a) predikatuko du:

- (29) a. Igande arratsalde honetan, ZER GERTATUKO DEN.

(28b)k aldiz (29b):

- (29)...b. Zirkura joango garela Anerekin MOMENTU JAKIN BATEAN, eta momentu hori ZEIN IZANEN DEN.³²

1.2.3. *Predikazio gune baten ondorengo informazio unitate guztiak al dira predikazio gune berri?*

Goazen atalka. Predikazio gune baten ondorengo unitateetan esaldi batean, beti izango da, gutxieneko, beste predikazio gune bat, bakarria bada azkena izango dena. Baina izan litezke gehiago, segidako esaldian legez, non unitate bakoitza den predikazio gune berri (esaldia, unitate bakoitzaren ondoren senti liteke oso eta amaitu):

32. Berriro eman dugu barne ordenamendua alda ezin lezakeen unitate zatika gaitz baten adibidea (*igande arratsalde honetan*). Halakoaren ordez, osagarri libre laburrak lituzkeen unitate baten aurrean bageunde (*autoz/pozik/gaur/etxetik* eta itxurakoak), askoz ere permutazio aukera gehiago izango genituzke, eta eztabaidak beste dimentsio bat irabaziko. 2. atalean saiatuko gara ikusten.

- (30) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} [↗IGANDE arratsalde honetan↘(↗?)]_{PG} [↗PAILAZO BERRIAK ikustera↘(↗?)]_{PG} [↗JOSEBAREN autoa hartuta↘]_{PG}

Esaldiak 4 predikazio gune ditu (4 “galdegai” nahi izanez gero).³³

Ez dira, ordea, predikazio gune baten ondorengo unitate guztiak berez predikazio gune berri izango. Izan litezke unitateak lotura zuzenik gabeak aurreko predikazio gunearekin, eta gobernu burua ondorengo unitateren batean dutenak. Hauek ezin izango dira predikazio gune, baizik ondoko unitateen marko, nola segidako adibidean:

- (32) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} [↗AURTEN ere gertatzen ez bazaigu behintzat↘(↗?)]_{PM}³⁴ [↗AURREKO urtekoa bezalako↘(↗?)]_{PM} [↗SEKULAKO deskalabruren bat↘]_{PG}

Hasierako predikazio gunearen ondoren, derrigorrezkoa da gutxieneko predikazio gune berri bat izatea. Kasuan, bigarren, hirugarren eta laugarren unitateek osatuko lukete batera, baina ezingo da hala sentitu esaldi amaierara arte. Ez bigarren, ez hirugarren unitatea ez dira beregainak. Esaldia ezin amai liteke hauen mugetan. Ez dira predikazio gune. Bai, ordea, laugarrena. Bestelakoa da egoera (33) esaldian (berriro 4 predikazio gune, 4 “galdegai”):

- (33) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} [↗DESKALABRUREN BAT gertatzen ez bazaigu↘(↗?)]_{PG} [↗AURTEN ere berriro↘(↗?)]_{PG} [↗AURREKO urtekoa bezalako↘]_{PG}

1.2.4. *Predikazio guneen arteko garrantzi predikatiboen hierarkia posiblez esaldi barrenean*

Esaldi batek predikazio gune bat baino gehiago onar balitzake, ba al da hauen arteko hierarkia predikatiborik? Ba al da bereizterik esaldi bereko predikazio gune bi edo gehiagoren garrantzi predikatiboen artean?

Baietz uste dugu, bereiz litekeela batzuen eta besteen arteko garrantzia predikatiboen artean. Gauzak bere neurrian ulertzeko, ordea, komeni da lehenik galdera bera luzatzea esaldi desberdinetako predikazio guneetara.

- (34) [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} // [↗Baina joango gara↘(↗?)]_{PM} [↗EGURALDI TXARRA egiten badu↘]_{PG}

33. Ez horregatik arazo gabeak. Esaldiak azkenerako nahiko dislokazio handia erakusten du aditz nagusia duen lehen unitatea eta azkenaren artean. Halakoetan hiztunak, maiz emango du aditzaren informazio unitatearen aurretik besteren bat (predikazio marko soil orduan), aditzari gune zentralago, nuklearrago bat eskainiz esaldian (ik. 1.3.2.7. atala), hola moduz edo:

(31) [↗IGANDE arratsalde honetan↘(↗)]_{PM} [↗ZIRKURA joango gara Anerekin↘(↗?)]_{PG} [↗PAILAZO BERRIAK ikustera↘(↗?)]_{PG} [↗JOSEBAREN autoa hartuta↘]_{PG}

34. Unitatea luzexka gertatzen da ohiko luzeretakoko (14 silaba ahoskatze zainduenean), eta benetako ahoskatzean beharbada bana liteke bitan ([*Aurten ere*] [...]).

(34)n zein esaldik du garrantzi predikatibo handiagoa, lehen ala bigarrenak? Ba al da bereizterik bi predikazio guneen garrantzien artean? Beharbada eztabaida liteke horren gainean, eta agian argiren bat egin ere (esaldien testu-aurre zabala ezagutuz, bi esaldien egitura prosodiko-intonatiboa zehatz aztertuz, ...). Baina alde horiek ezagutzea baino mila bider garrantzi handiagokoa da onartzea *bi predikazio gune desberdin* ditugula; eta bigarrena lehenaren ondoren ematen dela, honen jakinaren gainean, hau testu-aurre bezala erabiliz, *azken predikazio / predikazio berriena* bezala. Bada, beraz, gutxieneko ordenamendu hierarkia bat.

Pragako eskolako ikastunek hiru ardatzetan finkatu ohi dute esaldi barreneko osagaien hierarkia predikatiboa (ik. Firbas 1992):

1. Osagaiaren *iragargarritasuna*;³⁵ testu-aurrearekiko duen mendekotasuna. Zenbat eta aurretik iragar errazagoa bere testu-aurrean, orduan eta hierarkia predikatibo, dinamismo komunikatibo, baxuagokoa osagaia.
2. Osagaiaren *garrantzi semantikoa* (berezkoa; eta esaldian betetzen duen funtzio gramatikal-logikoak eskainia, eskala jakin baten arabera).³⁶ Osagaia zenbat eta semantikoki nabarmenagoa, orduan eta hierarkia predikatibo, dinamismo komunikatibo altuagokoa.
3. Azkenik, *ordena*. Zenbat eta beranduago / eskuinerago agertu esaldian, orduan eta garrantzi predikatibo handiagoa.³⁷

Irizpideok lagungarri dira esku artean dakargun predikazio guneen arteko garrantzi eztabaidan. Kasuistika, ordea, mugagabea da. Eman dezagun, esateko, (35a) esaldia, bi intonazio unitatetan emana, (35x) galderaren erantzun (hau ere bi intonazio unitatetan):

(35) x. [NOR joango da gurekin] [DATORREN larunbat arratsaldean?]

a. [GU DENOK joango gaituk zuekin] [DATORREN larunbat arratsaldean.]

Galderan bertan bi predikazio gune ditugu, zein zein bezain garrantzizkoa. Galdera ez baita bakarrik *NOR joango den gurekin* (lehen PGA), baizik eta *nor joango den gurekin*, hain zuzen, *DATORREN larunbat arratsaldean*, eta ez beste zeinahi egunetan. Garrantzi handiko zehaztapena.

(35a) erantzunean ere, bi predikazio gune ditugu. Lehenak erantzuten dio zati-galderari (haren gailur prosodiko-intonatiboak; isatseko osagaiak ez baitira testu-aurrearen errepika baino). Bigarren unitate -PG- osoak ere ez du errepikatu baino egiten testu-aurrea. *Iragargarritasun* maila handikoa izaki, honen hierarkia predikatiboa oso baxua izanen da. Baieztatu egiten du, ordea, informazio unitate oso

35. Hau da, *predictability*-a. Zeinahi osagai aurretik iragartzeko probabilitatea.

36. Hala, esateko, aditz iragankorren kasuan, subjektuak aditzak baino maila predikatibo baxuagoa omen, eta honek baxuagoa, objektu zuzenak edo zeharrekoak, edo adberbio-adizlagun espezifikatzaile gehienek baino.

37. Printzipio honen inguruan informazio unitateen ordenaz hitz egin behar da, eta ez osagai solteen ordenaz, gure ustez.

batean, erantzuleari agi danean baieztatzea garrantziko iruditu zaiona. Horretatik bere nolabaiteko garrantzia. Ezen erantzunak, teoriarik, nahikoa zukeen lehen unitatea ematearekin edo honen *GU DENOK* atala. Konfirmazioaren nolabaiteko garrantzia hobeto uler liteke galdera beraren (36a) bezalako erantzun baten aurrean:

(36) x. [NOR joango da gurekin] [DATORREN larunbat arratsaldean?]

a. [GU DENOK joango gaituk zuekin] [DATORREN igandeaz geroztik.]

non, bigarren predikazio guneak, kasuan garrantzi handiko, zeharo bestelako unibertso predikatibo batera garamatzen, gure espektatiba unibertsoa goitik behera zuzenduz.³⁸ Bi egituren arteko garrantzi aldea sentitzen da unitateak esaldi hasieran emanda ere (ordu biak predikazio marko soil):

(37) x. [NOR joango da gurekin] [DATORREN larunbat arratsaldean?]

a. [DATORREN larunbat arratsaldean(↘)]_{PM} [GU DENOK joango gaituk zuekin(↘)]_{PG}

b. [DATORREN igandeaz geroztik(↘)]_{PM} [GU DENOK joango gaituk zuekin(↘)]_{PG}

(37b)ko predikazio markoa askoz garrantzitsuagoa da, ezaba ezinezkoa, (37a)ko baieztatzaile hutsa baino. Bi esaldien informazio-egiturek, ordea, era bertsuan dihardute unitateen arteko mugan:

(38) Datorren larunbat arratsaldean (edo igandeaz geroztik) GERTA LITEKEENAZ.

Aldiz, (35) eta (36)k unitateen arteko mugan ziharduten:

(39) NOIZ joango direnez batzuk besteekin.

Edota predikazioaren ordena jarraikiz:

(40) Batzuk joango direla besteekin MOMENTU JAKIN BATEAN eta hain zuzen momentu hori ZEIN IZANGO DEN.

Zuzenketa / konfirmazioen garrantzi kontrastatzaile handia ere suma liteke gure oinarritzko esaldiaren gainean eginiko aldaeron antzekoetan:

(41) a. [ZIRKURA joango gara Anerekin(↘)]_{PG} [EGURALDI TXARRA egiten badu(↘)]_{PG}

b. [ZIRKURA joango gara Anerekin(↘)]_{PG} [NAHIZ ETA eguraldi txarra egin(↘)]_{PG}

38. Errepikak ere badu beraz bere indar kontrastiboa. Mezu emaileak ez ohi du sortu alferreko errepikapenik, ez mezu hartzaileak erraz agoantatu. "Alferreko errepikak", nolana (halakorik baldin bada), errazago eraman litezke beharbada (kodemate eta deskodemate kostu gutxiagoz) intonazio-informazio unitateko isats prosodiko-intonatioan, aparteko unitate berri batean baino.

1.3. Ikuspegi honek idazkera eta itzulpengintzarako dituzkeen ondorio batzuez

1.3.1. Itzulpengintzarako ondorioez

Aipatzen gatozen intonazio-informazio unitateen inguruko ikuspegia ez da euskararen ezaugarri propio eta berezia. Beste hizkuntzetara ere zabaltzen da, nornahi erraz jabe litekeen moduan. Eta berebiziko garrantzia du, besteak beste, itzulpengintzan. Esateko, euskaraz bezalaxe, mezu hartzaileari ez diote mezu bera iragango segidako esaldi pareok frantsesez, ingelesez edo gaztelaniaz (bina intonazio-informazio unitatetan):

- (42) a. [S'il fait mauvais] [nous irons au cirque avec Ane.]
b. [Nous irons au cirque avec Ane] [s'il fait mauvais.]
- (43) a. [If the weather is bad] [we'll go to the circus with Ane.]
b. [We'll go to the circus with Ane] [if the weather is bad.]
- (44) a. [Si hace mal tiempo] [iremos al circo con Ane.]
b. [Iremos al circo con Ane] [si hace mal tiempo.]

Euskaraz bezala, hizkuntzotan ere (a) esaldiek, unitate arteko mugan, *eguraldi txarra egiten badu ZER GERTATUKO DEN* predikatzen dute. (b) esaldiek, aldiz, *zirkura joango garela Anerekin BALDINTZA BEREZI BATZUETAN eta baldintza horiek ZEIN DIREN*. Ez da beraz oso egokia izango hartarainoko desberdintasunak kontutan ez hartzea informazio unitate bat baino gehiago duten esaldietan, eta euskaraz (a) esaldiak eman nahi izatea (45a) segidan:

- (42) a. [S'il fait mauvais (temps)] [nous irons au cirque avec Ane.]
(43) a. [If the weather is bad] [we'll go to the circus with Ane.]
(44) a. [Si hace mal tiempo] [iremos al circo con Ane.]

- _____
- (45) a. Zirkura joango gara Anerekin eguraldi txarra egiten badu.

Edota (b) esaldiak (45b) itxuran:

- (42) b. [Nous irons au cirque avec Ane] [s'il fait mauvais (temps).]
(43) b. [We'll go to the circus with Ane] [if the weather is bad.]
(44) b. [Iremos al circo con Ane] [si hace mal tiempo.]

- _____
- (45) b. Eguraldi txarra egiten badu zirkura joango gara Anerekin.

salbu esaldien informazio-predikazio egitura apropos aldatu nahi bada. Berezi-tasunok kontuan hartzea, ordea, arau baino maizago da seguru asko salbuespen euskal itzulpengintzan (are ingurukoetan, ikusiko dugun legez, nahiz beste hizkuntzon arteko parekotasun sintaktiko handiagoek –vo hizkuntza prepositiboak–

nahi gabe ere errazago eramango duten itzultzailea esaldien jatorrizko informazio unitateen segida zintzoago errespetatzera).³⁹

1.3.1.1. Argibide zenbait adibidetxo batzuen haritik

Lau adibidetxo fenomenoaren erakusgarri.

1.3.1.1.1. Lafitteren esaldi baten inguru

X. Arbelbidek gogoratzen du (*Itzulpengintzaren ateka eta autobideak* artikulua, 1998), P. Lafittek bere gramatika (§ 772) ZEIN-erlatiboen erabilera gaitzesteko darabilen (46a) esaldia, kakotxa tarteko bi informazio unitatetan banatua zalantza gabe (46b):

- (46) a. ce qui est atroce, quoique littéral.
b. [ce qui est atroce,]_{PG} [quoique littéral.]_{PG}⁴⁰

Esaldia (47) bezala itzultzen da artikuluan, berriro bi informazio unitatetan bana litekeena kakotxa tarteko (1998, 78):

- (47) a. Nahiz hitzez hitz egin itzulpena den, min egiten du.
b. [↗Nahiz hitzez hitz egin itzulpena den↘(↗)]_{PM} [↗MIN egiten du↘]_{PG}

Zergatik ematen da itzulpena ordena horretan, eta ez, euskaraz era berean zilegi litzatekeen (48)renean, hurbilago jatorrizko esaldiaren ordena eta informazio-egituratik?

- (48) a. Min egiten du, nahiz hitzez hitz egin itzulpena den
b. [↗MIN egiten du↘(↗?)]_{PG} [↗nahiz hitzez hitz egin itzulpena den↘]_{PG}

Ez ote dago (48) hurbilago frantseseko esaldiaren muintetik (47) baino? Eta aldiz (47) hurbilago frantseseko *quoique littéral*, *ceci est atroce* edo *ce qui, quoique littéral, est atroce* edo antzekoren batetik? Zergatik, zertarako, aldatzen ditugu orduan ordenak, euskaraz biak izaki zilegi?⁴¹

Guk bestela ikasi dugu, noski. Euskaraz ordena aldatu egin behar dela, itzulpen txukunik egin nahi bada. Alberbidek berak gogorarazten digu zintzo artikulua

39. Uste dut, esaldi barneko informazio unitateen segida hizkuntza desberdinetan errespetatzearen garrantzia, jorratu ohi zela, besteak beste, garai bateko Martuteneko Itzultzaile Eskolan ere, Josu Zabaletaren eskutik bederen, esaldi barreneko segmentazioen garrantziaz arduratzean.

40. Lafitteren esaldi osoa (§ 772): ...; *par exemple, ils diraient: gerla denboran gerthatu niz hiri baten zointan elgarrekin bazkaldu baiginen, ce qui est atroce, quoique littéral.* (406).

41. Egia da Alberbide bere artikuluan ez dela soilik itzulpena egiten ari. Bera bere harian ari da, eta ez du zertan errespetaturik frantseseko *a+b* ordena. Are gutxiago, euskarazkoaren ondoan jatorrizkoa emanda. Hori erretorikaren jokoan sartzen da. Itzultzaileak, baina, ondo kontzienteki egin behar dio ihes halako tranpari. Ezen itzultzaileak itzuli aurretik ezagutzen du osotasunean jatorrizko esaldia, itzuli behar duen informazio unitate bakoitzaren *testu-aurrea eta testu-ondoa*. Baina ez hala itzulpenaren irakurleak, zeinak itzulitako testua izango duen soilik aurrean, eta soilik itzultzaileak ordura arte erakutsi dion testu-aurrea. Ez testu-ondoa. Eta testu-aurrea eta testu-ondoa bi hizkuntzetan desberdinak baldin badira, mezu hartzaileak, entzule edo irakurle, arazoak izango ditu testua prozesatzerakoan mezu berdina jasotzeko bi hizkuntzetan, komunikazio arazoak.

sarrerako aitorpenean (74-75): «..., bainan iduritzen zait geroztik ... badakidala ere erranaldi baten itzulpena azkenetik egiten hasi behar dela eta ez hastapenetik, frantsesari jarraikiz».

Eta hori da gakoa. Guk itzulpen printzipio bezala dugula eraikia euskal eta erdal esaldien syntaxien kontraktasun printzipioa, Altubek ongi saiaturak erakutsi bezala (1956: 5): «Or ditugu beraz, aurrez-aurre, bi syntaxis lege 1º erderarena ...; 2.º orren guziz kontrakoa, itxulitakoa, ..., euskerarena».

Antzeko hausnarketak, nolana, aspaldiagotik datozkigu. Jada Kardaberazek ere hala dio 1761ko *Eusqueraren berri onac*-ean, gerora eskola sortuko duen joskerari bitxi, aditz atzera zalean (58, beltzaxkak gure):

Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco, ta berariaczo ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era postpositivo, ta arc prepositivoan. Esan naidu: **Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eusquerac azquenerontz beti botatcen duela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire edo chiste gucia dago.** Bestela, itzez itz Erdaratic Euscarara biurtcen badezu, chit itsusi, doacabe, edo moldacaitz irtengo da, eta mutillac esan oidutena: "comer aviamos echo nosotros: bien que està, Padre" eta: "á ti la lengua que no te saque pues". Itzez itz biurtcea orra cer dan. Eta edoceñ Lengoagetan orobat da.

Berrehun urteren bueltan ondo asko barneratu ditugu printzipiook, gu denon barne inkisizio modura jokatzeko dutenak. Jabetu beharra dugu, ordea, badenez aldea Kardaberazek salatzen duen *hitzez hitzeko* itzulpen baztergarritik, guk Kardaberazekin praktikatzeko dugun Alberbideren hartara *erranaldi baten itzulpena azkenetik egiten hasi behar*. Eta euskarara *hitzez hitz* ezin itzuli dela dakigun bezain ongi, ikasi beharko dugu ez zaigula batere komeni esaldiak beste gabe atzekoz aurrera itzultzea, ez bada euskarazko komunikazio gaitasunaren kaltetan.

Nola itzuli orduan? Erantzunak badu seguru asko zerikusirik esaldi barreneko informazio unitateekin. Ezen:

1. Ziur da informazio unitate bakoitzaren barne, hizkuntza bakoitzak zorrotz gordezten dituela ordenamendu eta intonazio lege eta plegu propio, nekez baino aldatzen ez direnak. Eta itzultzaileak erabateko askatasuna beharko du hizkuntza bateko informazio unitatea, bestean nahi edo komeni bezala emateko, jatorrizko ordenamenduari men egin beharrik gabe. Informazio unitateen pertzepzioa (ia) instantaneo eta globala izaki, mezu hartzaileak mezu berttua jasoko du bi hizkuntzatan, informazio unitateen barne egiturak ordenamendu desberdinak izan arren. Kardaberaz, Azkue, Altube eta Alberbide guztien gaztiguak euskara eta inguruko erdaren arteko atzekoz aurrerako joerez, egia itxurakoak izan litezke intonazio-informazio unitateen barnerako.⁴²
2. Itzultzaileak, ordea, helburu izan beharko du informazio unitateen segida bera

42. Nahiz, joerak joera, kasu bakoitza berezia den, eta maiz aurkituko diren hizkuntzaren artean ere ordena kidetasunak (adjektibo, galdegile, zenbaki, ... eta abarren kokaguneak); edota desberdin izan arren, zehatz kontrako eta itzulitakoak ez diren ordenamenduak.

errespetatzea ahal duen neurrian hizkuntza bietan, bietan informazio-egitura eta mezu desberdinak zabaltzeko arriskuan. Eta egitura gramatikal bat informazio unitate batez harat barreiatzen denean, itzultzaileak erabaki beharko du komeni zaion egitura gramatikal berari makurtzea bi hizkuntzatan (informazio unitateen ordenari muzin eginez), edota, aldiz, saiatzea informazio unitateen ordena bertsu bat gordetzen egitura gramatikalak aldatu behar izanda ere, bi hizkuntzetan informazio-egitura bertsua gordetze alde. Zenbat eta helburutik urruntzenago, orduan eta jatorrizko mezua desitxuratzenago.

1.3.1.1.2. Camus-en esaldi baten haritik

Camus-en ondo esaldi laburreko *L'etranger* nobelak bi itzulpen izan ditu euskaraz.⁴³ Hauetan, adibiderako, jatorrizko (49x) esaldia, bi ordena desberdinetan ematen da (49a, b) (hirurak balizko informazio unitatetan banatuak erakusten ditugu parentesi arteko testu-aurretiko batez):

(48) x. (J'ai demandé deux jours de congé à mon patron) [et il ne pouvait pas me les refuser] [avec une excuse pareille.]

- a. (Bi egun jai eskatu diot nagusiari,) [eta ezin zidakean uka] [horrelako kasuan.]
- b. (Bi eguneko baimena eskatu nion nagusiari,) eta, [horrelako atxakia izanda], [ez zidan ukatzerik izan.]

Zerk bultzatu du bigarren itzultzailea jatorrizkoaren informazio unitateen ordena aldatzera, eta lehenengoa, mantentzera? Gatozen harian, esan, bi ordenamenduen predikazioa desberdina dela informazio unitateen arteko muga. Jatorrizkoak eta lehen itzulpenak (50a) predikatuko lukete:

(50) a. Bi egunetako baimen hori ezin ziola ukatu BALDINTZA JAKIN BATZUETAN, eta baldintza horiek ZEIN DIREN.

Bigarren itzulpenak, berriz, (50b):

(50) b. Horrelako aitzakia bat izanda, ZER GERTA ZITEKEEN (edo kasuan, EZ ZITEKEEN).

Beste kontu bat da neurtzea halako desbideraketek zenbaterainoko garrantzia duten kasu bakoitzean. Arazoa da maiz ez gabela konturatzen halako aldaketek duketen eraginaz esaldien prozesamenduan eta komunikazioan. Zenbat eta desbideraketa handiagoak, hainbat eta eragin nahasgarriagoa; zenbat eta txikiagoak, eragin txikiagoa izango dute ulermen prozesuan, halakoek ere justifikaziorik beharko luketen arren.⁴⁴

43. Bata 1970ean argitaratua (eta berriro hainbat zuzendua 1987rako). Bigarrena oraintsuago eta modu marjinalagoan zabaldua, posta elektronikoa eta antzekoen bidez (ik. bibliografia).

44. Esateko, atal beraren beste hizkuntzako zenbait itzulpenetan ere, era berean ematen da ordena aldaketa pasarte berean, justifikazio handirik gabe oro har (salbu beharbada alemanean). Hala italiaraz (7): (*Ho chiesto due giorni di libertà al principale*) e con una escusa simile non poteva dirmi di

1.3.1.1.3. Bonemintxuren itxura onak

Goscinyren Asterix eta herriko gizonezko guztiak joko olinpikoetara abiatu direlarik, Bonemintxuk hartuko du senar buruzagi Abrarakurzixen agindu oldarra, eta antolatuko ditu herriko emakumezko guztiak lanean. Hala dio jatorrizko frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz (18):

- (51) a. Eh bien, on en profitera pour nettoyer et mettre un peu d'ordre, *en attendant que ces brailards reviennent!*
b. We can get the place tidied up a bit *before those loud-mouths come back!*
c. ¡Bueno, lo aprovecharemos para limpiar y poner un poco de orden *hasta que esa pandilla de desordenados regresen!*
-
- d. Beno, *bazterrendredatzaile hauek kanpotik dabiltzan bitartean*, hau dena pixka bat garbitu eta txukuntzen ihardungo dugu!

Aipatu dugu hizkuntza askotako itzulpenetan zaiola errespetu eskasa jatorrizko informazio unitateen segidari. Halere, euskaraz hautsiko ditugu marka guztiak. Zergatik ematen du Asterixen itzultzaile benetan onak esaldi hasieran euskaraz beste guztiek esaldi amaieran ematen duten endredatzaileen berri? Hori ez da Gosciny-ren jatorrizko ordenamendua. Eta hor ere ez da eragozpen gramatikalik. Lanbidearen ajeak? Bizio?

1.3.1.1.4. Definizioak emateko erak

XX. mendearen lehen laurdenera arte gure dotrina eta antzeko galde-erantzun eskuliburuek –antonomasiako definizio emaille gure artean– eman ohi dituzte bere definizioak hasieran (berr)aipatuz definitu nahiko terminoa eta ondoren definizioa, tarteko *da* kopularen ondoren (*Jaungoikoa da ...* edo egiturarekin). Hala, esateko, Azkue berak ere 1897an, Lapurdiko euskaratik Bizkai-Gipuzkoakoetara itzultzen duen dotrinan (2):

I. *¿Zer da laungoikoa?*

E. *laungoikoa da Gogo edo Espiritu bat betikoa, guztiz orrnidua, gauza guztien Sortzaile ta Nagusia.*



G. *¿Zer da Jainkoa?*

E. *Jainkoa da Gogo edo Espiritu bat betikoa, guztiz orrnidua, gauza guztien sortzaile ta Nagusia.*

no. Portugesez (47): (*Pedi dois dias de folga au meu patrão*) e, *com uma razão destas, ele não mos podia recusar*. Alemanez, honen joskera estandarraren eskaerak zorrotzagoak izanda (7): (*Ich habe meinen Chef um zwei Tage Urlaub gebeten,*) *und bei so einem Entschuldigungsgrund konnte er sie mir nicht abschlagen*. Aldiz, jatorrizkoaren informazio unitateen ordena errespetatzen dute ezagutzen ditugun gaztelaniazko bi itzulpenek: (*Pedí dos días de licencia a mi patrón*) *y no pudo negármelos ante una excusa semejante*. (1971); (*He pedido a mi patrón dos días de permiso*) *que no me podía negar con una excusa semejante* (1998). Ingelesak: (*I asked my boss for two days off*) *and he couldn't refuse under the circumstances*. Katalanak: (*He demanat dos dies de permís al meu patró,*) *que no me'ls podia negar davant una tal excusa*. Edo gailegoak: (*Pedinlle dous días de permiso ó patrón*) *e non mos podia negar con semellante escusa*.

Joera hori 1921ean aldatzen da deblauki, *Jaungoiko-Zale* elkartearen bultzadaz Manuel Lekuonak gipuzkerara itzultzen duen katiximarekin, ondokoen eredu. Villasantek salatzen du argi bertako joskera moldea zenbait adibide emanaz (1980, 249):

En el catecismo reformado que se publicó en la diócesis de Vitoria en 1921, se observa a rajatabla en las respuestas la ley de echar los predicados, por largos que fuesen, antes del verbo, pero tal construcción, al tratarse de enunciados largos, produce en el ánimo una sensación de espera o ansiedad. Véanse algunos ejemplos:

G. Zertarako jarria da Eukaristia deritzan Sakramentua?

E. Bear bezela artuta gure animen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigarri izan dakigun, jarria da Eukaristia deritzan Sakramentua.

Nahi adina adibide jaso liteke jatorrizkoan segidakoaren itxurako:

G. *Nor da Jaungoikoa?*

E. *Izan diteken izakirik bikañena, zeru-lurren egille ta jabea, onai betiko zoriona ta gaiztoai betiko zoritxarra emango dien Jauna da Jaungoikoa.*

Zertara datoz esaldi amaierako subjektu eta kopulen errepika ja alferrekoak?⁴⁵ Villasantek dio (1979: 403):

En cuanto a la sintaxis del nuevo catecismo, tampoco creemos que la elegida sea pedagógicamente la más recomendable. Sobre todo en frases un tanto largas [informazio unitateren bat baino gehiago dutenetan?], el echar por delante todas las subordinadas, dejando para el final la principal, crea una dificultad muy real para la claridad, comprensión y aprendizaje del texto; y habiendo otras construcciones mucho más asequibles e igualmente usuales, no sabemos contra que punto de ortodoxia vascológica se peca recurriendo a ellas.

Kontua da oraindik ere hari bertsuan jarraitzen dugula. Hala itzultzen du, esateko, Borgesen *Ipuin hautatuak*-ek segidako definizioa euskaraz:

(52) a. (... y le complacía repetir esta sentencia de Carlyle:) '*La historia universal es un texto que estamos obligados a leer y a escribir incesantemente y en el cual también nos escriben.*'

b. (... eta laket zitzaion Carlyle-ren sententzia hau errepikatzea:) "*Etengabe irakurri eta idaztera beharturik gauden testu bat da historia unibersala, eta idatzi ere idazten gaituzte bertan.*"

Darraigun hausnarketa bidean, pentsatu behar, Borges-Carlyle-ren esaldiak historia unibertsala definitzen duen bitartean (53a)

(53) a. Historia unibertsala ZER DEN.

Euskarazko bertsioak, aldiz, (53b) definitzen duela, ez (53a):

(53) b. Etengabe irakurri eta idaztera beharturik gauden testu bat ZER edo ZEIN DEN.

45. Hasieran lagungarri dena, alferreko baita 50 silaba (eta zenbat informazio unitate?) eta gero.

Zilegizkoak biak, baina desberdinak biak. Euskarazko definizioaren pareko litzateke gaztelaniaz (54), eta ez Borges-Carlyleren jatorrizko hura:

(54) Un texto que estamos obligados a leer y a escribir incesantemente es la historia universal.

Eta hori da euskal bertsioaren irakurleak jasotzen duen mezua.⁴⁶ Ez jatorrizkoa.⁴⁷

1.3.1.2. Atzekoz aurrerako itzulpenaren ondorioak esaldi kateetan

Esaldien atzekoz aurrerako itzulpen sistemaren ondorio kezkarriak ikusgarriak dira esaldi solteetatik esaldi kateetara pasatzean. Hizkuntza guztietan da arrunta esaldi bateko azken informazio unitate(et)an, azken predikazio gune(et)an, emandako osagaiak bihurtzea hurrengo esaldi(ar)en hasierako predikazio marko, zeinen gainean predikatu ondoren. Hala, esateko, Borges-en *Babelgo Liburutegia*-ren segidako pasartean. Euskarazko itzulpenak zintzo errespetatzen du jatorrizko informazio unitateen ordena:

(55) a. A izquierda y a derecha del zaguán hay **dos gabinetes minúsculos**. Uno permite dormir de pie; **otro**, satisfacer las necesidades finales.

b. Behebarruaren ezker-eskuin badira **bi gelamodu txiki-txiki**. Batek lo egiteko aukera ematen du; **besteak**, azken beharrei men egitekoa.

Distantzia bera gordetzen da bi hizkuntzetan erlazionatutako elementuen artean (*bi gela txiki / bat / bestea*). Aldiz, atzekoz aurrerako itzulpen (beti posible) batek, batere beharrik gabe eramango gintuzke alferreko dislokazioetara, horrela moduz:

(56) **Bi gelamodu txiki-txiki** badira behebarruaren ezker-eskuin. Lo egiteko aukera ematen du **batek**; azken beharrei men egitekoa **besteak**.

Jatorrizkoaren eta J. Garziaren itzulpeneko etenik eza *bi gela txiki* eta *batek* osagaien artean, 26 silabako tarte bihurtu da atzekoz aurrerako itzulpenean. Gutxieneko bi informazio unitate tartekatuak, behar gabe, estu erlazionatutako osagaien artean. Zilegi. Baina ez jatorrizkoa. Gaztelaniaz ere posible zukeen Borgesek (57)ren antzeko segida batean jostea esaldiak:

(57) Dos gabinetes minúsculos hay a izquierda y derecha del zaguán. Permite dormir de pie uno; satisfacer las necesidades finales el otro.

Honen kidekoa litzateke euskarazko atzekoz aurrerako itzulpena.

46. Nahiz bi hizkuntzetan intonazio-informazio unitateen banaketa ez den berdina izango. Hizkuntza bakoitzaren ezaugarri intonatioben kariatarat, kopula desberdinki kokatuko baita batean eta bestean ziur aski aurreko edo ondoko sintagmari lotua: [... *testu bat da*] [*historia unibersala*] euskaraz // [... *y a escribir incesantemente*] [*es la historia universal*] edo antz batera gaztelaniaz.

47. Definizioen arazoaz uste dut eztabaidatu dela zerbait azken urteotan. Horren seinale dira, besteak beste, *Administrazioa euskaraz* aldizkariak azken urteotan agertutako Agirre, Cambra, España edo Kaltzakortaren lanak, bibliografian aipatuak (ik. orobat IVAP 1994).

1.3.1.3. Zein da itzulpen unitatea?

Esaldia, luzera mugagabekoa, ezin da itzulpen unitate egokia izan, maiz uste edo praktikatu dugunaren kontrara. Itzultzaileak ezin du zeinahi luzeratan libreki antolatu esaldi atalen ordenamendua jatorrizkoa kontuan hartu gabe. Itzulpen unitateak, esaldia baino zerbait mugatuago behar du, dimentsio finkoagokoa, lotuagoa gizakiak dituen gaitasunei mezu entzun edo irakurriak prozesatzeko. Halako unitateak dira intonazio-informazio unitateak, beti luzera oso mugatukoak.

Eta itzultzaileak nahi adina lizentzia hartzen ahal du informazio unitatearen barne osagaiak nahi edo hizkuntzak eskatu ordenamenduan emateko, jatorrizkoaz bestela ere. Baina ahalik eta lizentzia gutxien hartuko du hizkuntza batetik bestera aldatzeko autoreak jatorrizko testuari ezarri dion informazio unitateen segida.

Itzultzaileak derrigorrez emango du (58a)koen itxurako esaldi bat, (58b) segidan euskaraz, honen jiteari jarraiki:

(58) a. Es tarde. // C'est tard. // It's late.

b. Berandu da.⁴⁸

Aldiz, (59a)ren itxurakoa, zuzenago emana izango da (59b) ordenan, atzekoz aurrerako (59c)n baino:

(59) a. Es demasiado tarde para poder cambiar ahora de repente usos y costumbres que se han ido tejiendo durante los últimos cien años.

b. Beranduegi da orain bat-batean aldatu ahal izateko azken ehun urteotan bilbatzen joan diren joera eta ohitura zenbait.

c. (?)Azken ehun urteotan bilbatzen joan diren joera eta ohitura zenbait orain bat-batean aldatu ahal izateko beranduegi da.

Azken hau askoz antzekoago litzateke gaztelaniazko (60)rena:

(60) Para poder cambiar ahora de repente usos y costumbres que se han ido tejiendo durante los últimos cien años es demasiado tarde.

Non ez geundekeen jada (61a) predikatzen:

(61) a. Beranduegi ZERTARAKO DEN.

Baizik (61b):

(61) b. Azken ehun urteotan bilbatzen joan diren joera eta ohitura zenbait orain bat-batean aldatu ahal izateko ZER ERAGOZPEN DAGOEN.

48. *Da berandu* segidak ez du euskararen jitea gordetzen, eta gordin hausten du aipatu euskarazko *aditza-bigarren* fenomenorako joera. Horrek ez du, hala ere, esan nahi zuzena denik XX. mendeko gramatikariek gure tradizio guztien kontrara zabalduriko debekua aditz trinkoak esaldi hasieran emateko. Honi buruz dihardugu Hidalgo 1994c-n. Ik. orobat 3.2. ataleko oharñoa (lanaren 2. partean).

1.3.2. Idazkerarako ondorioez

Aipatu kontuek ez dute ondorioa itzulpengintzan soilik. Baita ere euskarazko idazkeran. Ikus dezagun, adibide, Altubek 1919an garaiko egunkari batetik jasotako (62a)ko esaldia (1919, 82-3), berari joskera ona iruditu ez, eta (62b) bihurtzen duena (informazio unitatetan banatuak Altube berak garatzen duen eztabaidaren haritik):

- (62) a [Entzun det]_{PM(G)}⁴⁹ [zerbait antolatzen dabiltzala]_{PG} [gure erri onetan]_{PG}
[itzaldiak egiteko]_{PG} [gure aberriaren aldez.]_{PG}
b. [Gure erri onetan]_{PM} [gure aberriaren aldez]_{PM} [itzaldiak egiteko]_{PM(G)}⁴⁹
[zerbait antolatzen dabiltzala]_{PM(G)}⁴⁹ [entzun det.]_{PG}

Zein da esaldi bien informazio-egitura? Azpindizetan adierazi bezala, jatorrizko (62a)ko lehen informazio unitatea jasorik, mezu hartzaileak informazio falta sentituko du predikazioa bertan osatua sentitzeko (hiztunak ZER ENTZUN DUEN edo adieraziko lukeen osagarri bat). Unitateak ezin osa lezake predikazio markoa (PM) baino, nahiz predikazio marko hau globala izan (ik. 1.3.2.4). Bigarrenak, ordea, predikazio gune balioa izango du jada (PG) (hor bertan buka bailiteke besterik gabe esaldia). Eta PG balio bera izango dute hurrengo hiru unitateek ere, bakoitza erraz integra litekeelarik aurrekoek sortutako unibertso predikatiboan. Esaldiak, ordena horretan, 4 predikazio gune ditu, lau “galdegai”, jasotzeko momentu beretik integra ditzakeenak diskurtsoaren unibertsoan, eta jaso ahala testu-aurre bihur ditzakeenak memoriaren bigarren mailako apal batera erretiraturik.

Altubek proposatutako zuzenketarekin, aldiz, bestela gertatuko da. Lehenengo unitatea (*Gure erri onetan*) predikazio marko partziala baino ez da izango, eta mezu hartzailea unitate berrien zain utziko du. Bigarren unitatea ere (*gure aberriaren aldez*) predikazio marko partziala izango du, osotasunik gabea eta aurrekoarekin loturarik gabekoa. Mezu hartzaileak elkarrekin zerikusirik ez duten bi unitate izango ditu, 16 silaba garunean modu aktiboan gorde beharreko, erretiratu eta testu-aurre bihurtu ezineko, eta inongo unibertso predikatibotan integratu ezineko. Hirugarren unitateak (*itzaldiak egiteko*) eskaintzen dio mezu hartzaileari lehen bi unitateak integratu ahal izateko unibertso bat, baina berak ere ez du predikazio gunerik osatuko, eta mezu hartzailea artean zain utziko du hiru unitateetako informazio hori (24 silaba jada) inon kokatu eta erretiratu ezinik. Beste hainbeste gertatuko zaio laugarren unitatearekin ere (*zerbait antolatzen dabiltzala*), honek aurreko unitateak nonbait integra ditzakeen arren, bera geratzen delako zintzilik, 34 silabako informazioa inon integratu, kokatu eta ahaztu ezinik. Bosgarren unitatea jaso arte (*entzun det*), mezu hartzailea ezin sentituko da lehendabiziko aldiz ase, eta bost unitateetako informazioa nonbait globalizatu, integratu eta jada desaktibatzeke moduan (37 silaba eta gero).

Anartean mezu hartzaileak 37 silaba horiek jaso eta gorde behar izan ditu nonbait, hauei gorputz predikatibo osatua eman aurretik. 37. silabara iristen denerako, ordea, ziur ahaztu ditu aurreko unitateetako informazioetako asko. Gizakiak halako

49. Ik. PMG, *predikazio marko global* hauei buruz dioguna 1.3.2.4. atalean.

kasu batean ohi duen gaitasun mnemoteknikoa biziki mugatua da. Gizakia, ez bakarrik euskalduna, ez da gauza, 37 silabako segida bat bere horretan aktiboki gordetzeko bere lan edo memoria laburrean, hau beste nonbait integratu eta desaktibatu ahal izan aurretik.

1.3.2.1. Gure memoria gaitasunen inguru⁵⁰

Zein gaitasun mnemotekniko dugu gizakiok gure *memoria laburrean* edo *lan memorian* datu solte segidak gordetzeko, hauek beste nolabaiteko globalizazio edo *epe luzeagoko memoria* mota batean kokatu ahal izan aurretik? Esperimentazio gehienak ingeleserako egin izan diren arren, badirudi ondorioak beste hizkuntzetara ere zabal litezkeela. Eta gizakiok *epe laburreko memoria* (memoria moten kontzeptuak metaforikoak dira, ez entitate fisiko errealak), hau da, beren segidan eta erabat fidel gordetzen ahal dugun informazio edo datu *solteen* kopurua ez da 7 (± 2) unitate laburrena baino. 7 (± 2) letra, digitu, irudi, edo hitz solte (kopurua proportzioan murriztuko delarik, hitz / datu solte bakoitzaren luzera / konplexutasunen proportzio berean). Denera, eta hitzekin jokatzuz, 10/15 silaba inguruko kopuru inguruak gehienez ere.⁵¹

Hortik aurrera gizakiok akatsak omen ditugu datuen errekupeazio fidelean: ordenak nahastu, osagaiak ahaztu, edo ez direnak erantsi. *Epe laburreko memoria* gaitasunak ez du 2 segundotik gora irauten, eta denbora epe horretatik aurrera aipatu akatsak errepikatu ohi ditugu datuen erretentzioan. Memoria laburra estu lotzen da osagaien alderdi fonikoekin (eta beraz silaba luzerarekin), nahiz informazioa beste kanal batez (imajinez edo) jaso izan. *Lan memoriak* lagunduko digu *ikusmen memoria* (instantekoa) eta *epe laburreko memoriako* datuak unitate globalagoetara iragaten; eta *memoria mugatuotan* gordetako datuak *epe luzeko memoria episodiko* edo *semantikora* iraganez libratzen omen dugu *epe laburreko memoria*, hau berriro gaituz datu berriak biltzeko.

Kontua da, jabetzea, gizakiok irakurtzean edo entzutean jasotako datuak unitate handiagoetan integratu ahal izan aurretik erabil genezakeen memoria gaitasuna, dirudienez, oso mugatua dela. Mezu emaileak ezin du espero mezu hartzaileak mezu zati luzeak gordetzea buruan bere horretan, hauei predikazio gune edo predikazio marko globalagoen aukera eman gabe; hauek nonbait integratzeko aukera eman gabe eta datuak epe laburreko memoriatik beste memoria maila batzuetara pasatzeko (non ez diren jada solte eta maila foniko zuzenean gordeko). Eta oso maiz (1-2 segundo oro) aukera eman gabe epe laburreko memoria libratzeko osagai berriak jaso ahal izan ditzan. Baldintzok hobeto betetzen ditu Altubek Bilboko egunkarian jasotako esaldiak berak zuzendutakoak baino.

1.3.2.2. Altuberen zuzenketaren haritik

Altubek salatzen du delako esaldiaren joskera gaztelaniakotik kopiatua dagoela, eta segidako itzulpena iradokitzen du euskarazkoaren jatorrizko:

50. Ikus, giza gaitasun mnemotekniko eta psikolinguistikoen inguruan, besteak beste, aipatu: Clark & Clark 1977; Levelt 1989 (1995); Gathercole & Baddeley 1994; Gernsbacher 1994; Clark 1996; Eysenk-Keane 1995; Sternberg 1996; Haberlandt 1997; Medin-Ross 1997; edo Baddeley 1999.

51. Kurios, berriro, ohiko intonazio-informazio unitateen balizko luzera mugaren inguruko datua.

(63) He oído que están preparando algo en nuestro pueblo para pronunciar discursos a favor de nuestra patria.

Hala, euskara eta gaztelaniazko esaldien unitateen korrespondentzia zuzena litzateke (nondik salaketa):

(64) [Entzun det] [zerbait antolatzen dabiltzala] [gure erri onetan]
 A B C

(65) [He oído] [que están preparando algo] [en nuestro pueblo]
 A B C

[itzaldiak egiteko] [gure aberriaren aldez.]
 D E
 [para pronunciar discursos] [a favor de nuestra patria.]
 D E

Informazio unitate bakoitzaren barne ordenamendua, ordea, aitzakiarik gabekoa da euskaraz, eta ezinbestean gaztelaniazkoaren erabat itzulitako ere bai ia:

(66) [Entzun det] [zerbait antolatzen dabiltza-la] [gure erri onetan]
 1 2 1 2 3 4 1 2 3

(67) [He oído] [que están preparando algo] [en nuestro pueblo]
 2 1 4 3 2 1 3 1 2

[itzaldiak egi-teko] [gure aberria-ren aldez.]
 1 2 3 1 2 3 4
 [para pronunciar discursos] [a favor de nuestra patria.]
 3 2 1 4 3 1 2

Informazio unitateen barne ordenamenduak ez bezala, ordea, unitateen artekoak irizpide komunikatiboak jarraitu ohi ditu tradiziozko ahozko eta idatzizko euskara guztietan. Eta Altubek proposatutako zuzenketa euskaraz beti posiblea izango bada ere, honek entzuleari eragingo dion esaldi prozesamendua urruti handirik gabe izango da (68)k gaztelaniazko irakurleari eragingo liokeenaren antzekoa, bere bitxitasun osoan:

(68) En nuestro pueblo para pronunciar discursos a favor de nuestra patria que están preparando algo he oído.

1.3.2.3. Adibide berri baten inguru

Altuberen zuzenketa esaldiekin bezalatsu gertatuko da segidakoa bezalako 43na silabako esaldi parearekin:

(69) a. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [oso gustura ibiltzen gara denok]_{PG}
 [elkarrekin eskiatzen]_{PG} [Pirineoko haranetan barrena]_{PG}.

- b. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [Pirineoko haranetan barrena]_{PM} [elkarrekin eskiatzen]_{PM} [oso gustura ibiltzen gara denok]_{PG}.

(69a)n lehen informazio unitateak (11 silaba) predikazio marko soila eraikiko du, baina bigarren informazio unitatea jaso orduko (12 silaba) sentituko da predikazio gunea, esaldia hor bertan amai litekeela, eta hala, bi unitateetako informazioa epe luzeagoko memoriara iragan. Hirugarren eta laugarren unitateek ere predikazio gune berriak osatuko dituzte, aurreko predikazio unibertsoan integragarriak. Mezu hartzaileak erraz irensten ahal du hala 43 silabako esaldi luzea, hiru predikazio gune desberdinetan, bata bestearen ondorean emana.

(69b) esaldian, aldiz, mezu hartzaileak lehen hiru informazio unitateetako informazio guztia gorde behar du epe laburreko memorian (31 silaba) laugarrena irensten hasterako (+12 silaba = 43), honetan aurkitzeko predikazio gunea. Tartean nahastu eta ahaztuko ditu aurreko unitateetako informazio zenbait. Irakurleak esaldi osoa berrirakurri beharko du azken unitateko informazioaren argitara, euskara estandarrean maiz ohi den eran. Entzuleak, berriz, hasierako informazioa berrirerrekuperatu ezinda, maiz sentituko du galdua izanaren zorabioa (maiz gertatu ohi den bezala euskara estandarrean idatziz prestaturiko ahozko jardunekin). (69b)n mezu hartzaileak ezin du behin baino sentitu esaldian predikazioaren osotasuna, eta berau amaieran nekez. (69a)n mezu hartzaileak hiru predikazio gune sentitu eta prozesatuko ditu. Hiru bider predikazioaren osotasuna. Hiru galdegai.

1.3.2.4. Predikazio marko partzialak eta globalak

Kasuistika zabala da nolanahi. Zenbaitetan, informazio unitate batek, nahiz predikazio marko soil izan (artean zenbait osagarriren faltan), erraz integra lezake berak sortzen duen unibertso predikatiboan beste zenbait unitateetako informazioa, eta berau epe laburreko memoriatik ateratzea ahalbideratu. Hala gertatzen da nabarmen esaldiko aditz nagusia aurrealdeko unitate batean ematen denean, nahiz artean honek predikazio generik osatu ezin. Segidako esaldi parean esateko:

- (70) a. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [beti ibiltzen gara gu]_{PMG} [goizeko zortzietan hasita]_{PM} [elkarrekin eskiatzen.]_{PG}
b. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [gustura egiten ditugu guk]_{PMG} [denok batera jarrita]_{PM} [etxeko lan guztiak.]_{PG}

non, predikazio gunea ezin den, ez batean, ez bestean, azken unitatera bitarte sentitu. Baina bigarren unitateko aditz nagusiak, berezko balio semantiko eta morfologikoei esker, *predikazio marko globala* (PMG) sortzen du bietan, unibertso predikatibo zabala, aurreko eta ondoko unitateetako *predikazio marko partzialak* (PM) integratu ahal izateko. Halako prozesamendu bide batek orokorretik zehaztasunetara eramango du mezu hartzailea bigarren unitatetik aurrera. Altuberen (62b)ko zuzenketak, aldiz, zehaztasunez zehaztasun eramango du mezu hartzailea noraezean, alferreko prozesamendu nekeak eraginez.

Halako esaldietan alferreko da galdegai bezala predikatu nahi izatea aditz aurreko *beti* (70a) edo *gustura* (70b) osagaiak. Unitateko gailur prosodiko-intonatiboa bai, baina ezin izan dira "hiztunak esaldian ororen gainetik komunikatu

nahi duen” hura. Nola izan liteke osagai bat galdegai, mezu hartzaileak esaldia ezin badu osatua sentitu informazio unitate berean?

Gauza bertsua, azken bi unitateen ordena aldatuta ere, noiz bina predikazio gune genituzkeen predikazio marko global baten ondotik:

- (71) a. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [beti ibiltzen gara gu]_{PMG} [elkarrekin eskiatzen]_{PG} [goizeko zortzietatik hasita]._{PG}
b. [Eguraldi ona dagoenean]_{PM} [gustura egiten ditugu guk]_{PMG} [etxeko lan guztiak]_{PG} [denok batera jarrita]._{PG}

1.3.2.5. Aditz nagusia aurreratu esaldi luzean

Hori da gomendioa euskarazko idazkeran: esaldi luzean, informazio unitate asko dituen hartan, esaldi nagusiko aditza aurreratu beharko da, edo hobeto, ez gehiegi atzeratu, P. Esnal eta J.R. Zubimendik zuhur gomendatu bezala 1993ko *Idazkera-liburua*-n. Aditza da esaldiko nukleatzaile semantiko eta morfologikoa, eta soilik honen presentzia goiztiarrak esaldian ahalbideratzen du esaldian predikazio guneak eta predikazio marko globalak lehenbailehen sortzea, mezu hartzailearen memoria laburra arin libratuz informazio berriak jaso ahal izan ditzan. Horregatik aurreratu dute, zuhur asko, esaldi luzeko aditz nagusia gure klasiko guztiek XX. mendera bitartean, salbu Kardaberazen eskola joskera bitxikoan, zeinen kume antierderista baino ez den gaur eguneko joskera estandar aditz atzera zalea.

Beste gauza bat da, nolana, informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren joskera. 2. atalean ikusiko dugu.

1.3.2.6. Aditza aurreratu mendeko esaldi luzean ere

Aditza aurreratzeko aholkua, ez gehiegi atzeratzekoa, ez da bakarrik mesedegarri euskal esaldi nagusian, baita mendekoan ere luze gertatzen den orduko. Ez da batere berdina segidako bi esaldien prozesamendua:

- (72) a. Pisistrato Atenasko tirano gaixto hark plaza guztia iende alferrez bethea, eta hetarik anhitz malizia eta pensu gaixto sor zitekeiela ikhusi zuenean, (deitu zituen guztiak beregana.)
b. Pisistrato Atenasko tirano gaixto hark ikhusi zuenean plaza guztia iende alferrez bethea, eta hetarik anhitz malizia eta pensu gaixto sor zitekeiela, (deitu zituen guztiak beregana.)

Bigarrena da Axularrena (§ 16). Lehenengoaren irakurketak arnasarik gabe uzten gaitu. Apropos atzeratu diogu mendeko esaldiko aditza lege azkue-altubetarraren agindura.

Beste hainbeste suma liteke ondoko parean (lehena Axularrena (§ 17)):

- (73) a. Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark ere, galdegin zeraukatenean, ea zergatik hala bere meneraz gero, etzitzen bere etsai Argiboak desegin?

- b. Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark ere, ea zergatik hala bere meneraz gero, etzituen bere etsai Argiboak desegin, galdegin zeraukatenean?

(72) nola (73)n Axularrek aurreratutako mendeko aditzak, mendeko esaldia-
ren predikazio marko global aurreratuak sortzen ditu, ondoko unitateak integratu
ahal izateko. Atzeratutako aditzek ezin dute marko global hori eskaini mendeko
esaldiaren amaiera arte. Eta hori, esaldi luzean, kaltegarri baino ez da esaldiaren
ulermen prozesuan.

1.3.2.7. Dislokazioak uxatu

Hori da idazkerarako bigarren aholku nagusia: etenak / dislokazioak uxatu,
funtzios edo esanahiz elkarrekin estuki lotutako elementuen artean. Hala, esaldi
barruan, osagai guztiak ahalik eta gutxien urrunduz beren zuzeneko buru
gobernatzailetik, eta beraz, esaldiko aditz nagusitik. Nola, esaldien artean, arruntki
emanez aurreko esaldiekiko lotura diren elementuak (laburrenak ohi) esaldiko
aurrealdeko informazio unitateetan (baita esaldiko aditza bera ere, maiz baita hau
testu-aurrearekiko lotura elementu nagusi, euskaraz ohi dituen ezaugarri
semantiko eta morfologiko ezin aberatsagoen kausaz), eta aldiz, elementurik
berrienak, predikatiboena, luzeena, testu-aurrearekin lotura gutxien dutenak,
arruntki esaldi amaieran, maiz hauen gainean segituko delarik predikatzen ondoko
esaldietan, kate-begiak elkarri lotuta.

GLOSATEGIA

aditza-bigarren (xv) fenomeno euskaraz: Hala deitu diogu, euskal aditzak,
bereziki jokatuak –v–, erakutsi ohi duen joera nagusiari, beti bere intonazio-
-informazio unitatearen mugetan, ondoretik erantsita joateko, isats prosodiko-
-intonatiboan, bigarren elementu (atono) bezala enklitikoki josia, bere aurrean,
unitatearen hasieran gailur prosodiko-intonatiboa jasotzen duen osagai bereziki
laburrari –x– (eta ez berez galdegaiari, Azkue-Altubez geroztik predikatu
bezala), xv segidan. Fenomenoak zerikusi estua du munduko hizkuntzak
saillkatzeko erabili ohi den ordena ezaugarriekin: *objektua-aditza* ordena gorde
ohi duten hizkuntzak –ov/xv– edo *aditza-objektua* gorde ohi dutenak –vo/vx–.
Euskara ov/xv itxurakoa litzateke, turkiera, japoniera, latin klasikoa eta beste
hainbat hizkuntza bezala. Aldiz, gure inguruko gaur egungo frantsesa,
ingelesa, gaztelania, ..., vo/vx itxurakoak nagusiki. Tarteko hizkuntzak ere bai,
historikoki ov/xv izaki, gaur egun vo/vx direnak, edota maila batean edo
bestean bi ereduak ezaugarriak erakusten dituztenak (nola alemana eta
hizkuntza germaniarrak, hungariera, finlandiera, greko klasiko zaharra, frantses
eta ingeles zaharrak, ...).

esaldi (esaldi nagusi): Testuan *esaldiez* ari gara, eta ez *perpauzez*. *Esaldi*
darabilgu, eztabaida sakonegietan sartu nahi gabe, *beti testuinguru batean*
emango den proposizioaren unitate minimoa izendatzeko, ageriko (edo inoiz
ezkutuko) aditz nagusi baten gobernu pekoa, eta independentzia sintaktiko
osoa duena inguruko beste esaldiekiko (*esakune*, *enunziatu*, fr. *énoncé*, ing.
utterance-ren sinonimo edo). Ez gara *perpauzez* ari, hauek gure artean beste

maila bateko abstrakzioan definitu ohi direlako zenbait ezaugarriren jabe testuinguruarekiko dependentziarik gabe.

esaldiaren informazio-egitura aipatzean, gogoan dugu, beste inguru batzuetan aipatu ohi den esaldiaren *mintzagai-galdegai (iruzkin) egitura*: Esaldia ZERTAZ mintzo den, eta hartaz ZER dioen; bereziki, esaldiaren antolaketa *informazio-intonazio unitate* berezitueta, eta bakoitzaren balio informatiboa: *predikazio gune* (PG), edo *predikazio marko* (PM).

espektatiba unibertso: ik. **unibertso predikatibo**.

gailur / isats predikatibo: ik. **gailur / isats prosodiko-intonatibo**.

gailur / isats prosodiko-intonatibo: *Gailur prosodiko-intonatibo* deitu diogu, intonazio unitatean, oinarrizko maiztasun gailurra (F_0 , ahots korden dardara maiztasunaren gailurra), eta euskaraz (dirudienez) ahotsaren indar-energia gailurra ere batera jasotzen duen osagaiari. Osagai hau inguruko vx/vo hizkuntzetan ohi ez bezala, unitatearen hasieran eman ohi dugu euskaraz. Gailurrean, silaba bakarra nabarmendu ohi da gailur prosodiko-intonatiboaren bihotz, eta honi **nukleoa** deitu ohi zaio. Gailur prosodiko-intonatiboa jasotzen duen osagaiaren ondorengo osagaiek, intonazio unitate beraren barne, gainbeherako intonazioa erakutsi ohi dute: **isats prosodiko-intonatiboa** (intonazio gainbehera gailur prosodiko-intonatiboan bertan hasten da nukleoaren ondoko silabetan). Gailentasun prosodiko-intonatiboak erantsiko dio osagaiari nolabaiteko *gailentasun predikatiboa* unitatean, eta sentiaraziko du isats prosodiko-intonatiboa nolabaiteko *isats predikatibo* bezala. Euskaraz aztertu beharra da zenbateraino luza litekeen unitate barrenean nukleo aurreko silaba kopurua, eta sar ote litekeen hor gailur prosodiko-intonatiboko osagaiaz kanpoko beste osagai independenterik.

galdegai (definizio estandar bat: Elhuyar, *Hizt. Entz.*, 1993; ik **predikazio gune; iruzkin**): «Esakune batean, iruzkinaren osagai den elementu hanpatua, informazio berriena edo hiztunak ororen gaineratik komunikatu nahi duena biltzen duena.» Guk, *galdegai / iruzkin* kontzeptuen ordeztu-edo darabilgu antzeko esanahietan *predikazio gune* kontzeptua.

galdegai lege berria (gure proposamena): *Euskaraz galdegaia*:

1. *Zeinahi lekutan joan liteke esaldian aditzaren ondoretik, maizenik gertatzen den bezala euskal esaldien bi herenetan edo (Hidalgo, 1994d; 2000a), eta batez ere esaldi ez laburretan eta galdegai-iruzkin oso laburra ez dutenetan (are hauetan ere hiztunaren aukeran eta intonazio aproposean). Edo bestela,*
2. *Aditzaren aurre justuko gunean ere, informazio-intonazio unitatearen gailur prosodiko-intonatibo bezala eta aditza ondoretik arrastatuaz, enklitikoki isats prosodiko-intonatiboan, baldin eta hiztunak zeinahi kausarengatik galdegai (oro har, labur) hau esaldian aditza baino lehenago ematea erabaki badu, euskarazko esaldien beste herenaren inguruan gertatu ohi den itxuran (Hidalgo, 1994d; 2000a); bereziki, oso esaldi labur, edo galdegai laburrekoetan, eta berezikiago, orduan (ia) salbuespenik gabe, hiztunak, bere aukeran, aditza esaldi amaierarako uztea erabaki duen guztian, euskaraz hamar esalditik hiruan edo gertatu ohi den eran.*

galdegai lege kanoniko zaharra: Azkuek 1894z geroztik eta Altubek 1919 eta 1929an eraikia, galdegaia derrigorrez bidaltzen, galdegileak bezalaxe, aditzaren aurre justuko gunera, batere kontuan hartu gabe esaldien eta galdegai-iruzkinen luzerak, edota hiztunaren aukera aniztasuna esaldiaren

informazio-egitura modu desberdinetan antolatzeko. Bide honetan, era berean eman ohi da automatikoki galdegaitzat, aditzaren aurre justuko gunean doan osagaia, kontuan hartu gabe osagai hura den edo ez den "hiztunak esaldian guztien gaintik komunikatu nahi lukeen hura" definizioak eskatu eran, erregela irtenbide gabeko zirkulu bilakatur.

informazio-egitura: ik. **esaldiaren informazio-egitura.**

informazio-unitate: ik. **intonazio-informazio unitate.**

intonazio-informazio unitate: Navarro Tomásek gaztelaniaz (beste inoren aurretik) **grupo fónico** deitzen die; ingelesez deitura askoren artean **tone group / intonation unit** itxurakoak eman ohi dira maizenik; azken urteotan gramatika eskola sortzailearen ingurutik zabaldu dira antzeko fenomenoak izendatzeko **accent phrase, intermediate phrase** eta **intonational phrase** kontzeptuak (ik. Elordieta 1998); gure artean **tonu multzo** deitu zituen E. Osak. Guk **intonazio unitate (intonazio-informazio unitate)** deitura aukeratu dugu, **unitate** –minimoaren– zentzua azalagoan erakusten duelakoan. *Intonazio unitatea* izango da hiztunak ahoz bere mintzoaren katea fisikoki (h.d. modu ohargarri eta neurgarrian) eteten dueneko unitate minimoetako bakoitza.

- Unitate bakoitzak izanen du intonazio kurba berezi eta independentea gailur prosodiko-intonatibo propio bakarrarekin, euskaraz unitateko lehen osagaian eman ohi dena (beti?). Tonua behetik gora abiatu ohi da nukleo aurreko silabetan eta aldapa behera jausi isats prosodiko-intonatiboko osagaietan, itxura desberdineko txapelak eraginez.
- Unitate berria tonu gorakada berriaz hasiko da bere gailur prosodiko-intonatibo propiorantz (nola eta ez duen gailurra lehen silaba berean).
- Amaizten den unitateak erakutsi ohi du amaierako eten / mugaren ezaugarri ohargarri eta neurgarriak:
 1. Seinalerik nabarmenena, pausa fisiko isil edo betea (*a, ah, e, eh, um, ...*) –ez derrigorrezko, ez maizeneko–. Pausaren ondoren *beti* izanen da intonazio unitate berria (ikastun askok hala ez badio ere).
 2. Bigarren seinalerik nabarmenena, unitateko azken silabaren ez ohiko luzatzea (bikoiztu, hirukoiztu, laukoiztu, *hamarkoiztuz* luzera).
 3. Hirugarren, intonazio unitatearen amaierako berezko beherakadari *muga-intonazio* berezia erants dakioke: 1. beherakada mantenduz edo indartuz (\searrow), esaldiaren eta predikazioaren amaiera iragarritz unitatearekin bat; edota 2. Amaierako silaban *goranzko* (\nearrow) intonazioari ekinez, predikazioaren jarraipena iragarritz esaldi berean (*predikazio gune* berriak), edo ondoko esaldietan.
 4. Intonazio unitateen barne erraz-derrigorrez eman ohi den zenbait fenomeno fonetiko (asimilazio, disimilazio, ...), ez dira aurkituko intonazio unitateen arteko muga.
 5. Beharbada (aztertzeko) izan liteke zenbaitetan *glotalizazioa* ere unitate baten amaiera seinale euskaraz: predikazio markoa osatzen duen unitate labur baten segidan bertan (pausa, eta silabaren luzatze berezirik gabe) bere gailur prosodikoz hasiko den predikazio gunea ematen denean (*Ni? Mikel naiz* itxurako *mintzagai* laburreko esaldietan, esateko).
- Unitate berriaren hasierak ere erakuts ditzake ezaugarri bereziak gailurreranzko tonu gorakadaz gain. Ingelesez eta *anacrusia* (silaben abiada eta lastertasun berezia) aipatu ohi da. Euskaraz bestela izan liteke,

gurean unitate hasierak jaso ohi duenez unitateko gailur prosodiko-intonatiboa. vo itxurako hizkuntzetan gailur prosodikoa unitateko azken azentuan kokatu ohi da (silaba hau luzatuz).

- Intonazio unitateen barneko egitura prosodiko-intonatiboak ezaugarri bereziak erakuts ditzake esaldi mota bakoitzeko –deklaratzaille, agindu, galdera orokor, zati-galdera, zalantza, harridura, ...-. Are hizkera, hiztun edota egoera bakoitzeko. Ezaugarri hauek identifikagarri eta neurgarri izan litezke, baina euskaraz ere ez gabilta lehen urratsetan baino (ik. Gaminde, Hualde, Elordieta, Jansen, Jun eta Hidalgo 2000b lanak). Euskarazko unitateen intonazioaren ezaugarriez mintzo gara bereziki 1.1.2. atalean.
- Ohiko intonazio unitateen luzera / iraupena, munduan aztertu diren hizkuntzetan, segundo baten ingurukoa izan ohi da, edo honen azpitikoa; 7/8 silaba ingurukoa arrunta,⁵² nahiz badiren silaba bakarreko unitateak. Ia intonazio unitate guztiak (%90etik gora segur) 10 silabaz azpitikoak dira, nahiz bakarkako irakurketan edota aurretik ongi prestatutako hizkeran irits litezkeen inoiz 14 eta are silaba gehiagokoak izatera.⁵³ Haurrek eta hizketa apalek intonazio unitate laburragoak erabili ohi dituzte, eta helduen hizketa trebe eta jantziagoek intonazio unitate luzexeagoak.
- Intonazio unitateen deskribapen interesgarriak aurki litezke Cruttenden 1997 lanean. Baita ere, zaharragoak izan arren Navarro Tomás-en 1939 edo 1944koetan. Beste ikusbide batetik eginak dira: Selkirk 1984 eta 1995; Beckman-Pierrehumbert 1986; Nesper-Vogel 1986; Pierrehumber-Beckman 1989; edota Ladd 1996. Ik. euskaraz bide honetan Elordieta 1988; Cruttendenetik hurbilago, Hidalgo 2000b.
- Intonazioaren ezaugarri unibertsaltzat aipatu ohi da ahotsaren oinarritzko maiztasunaren beherakada intonazio unitateen barne, nola esaldi bereko unitateen artean. Badirudi gauzak nahasiagoak direla, eta oinarritzko maiztasunaren maila errekuiperatzeak aipatzera ez goazen bide konplexuak dituela unitateen arteko enfasi errekurtsioekin lotuta.
- **intonazio unitate / informazio unitate:** Halliday 1967z geroztik definitu ohi da *informazio unitatea* (*zentzu multzo –sense group–* edo antzeko), gizakiak kolpe bakar batean, ia denborarik gabeko instant batean (segundo erdi-oso baten bueltan) ahoz eman edo entzunez edo irakurritz prozesa lezakeen informazio kopurua, intonazio unitateen luzera errealtate eta hierarkia prosodiko-intonatibo-predikatiboei lotuta hizkuntza bakoitzean (ik. lan honetan 1.1.3-4 atalak).

52. Euskarazko adibideetan emateko, *Gurekin etorri da* bezalako 7 silabako esaldi baten ahoskatzeak 0,77 seg. eraman ditzake; eta *Gurekin etorri da gaur goizen* bezalako 10 silabako esaldia, etenik gabe emateak (h.d. intonazio unitate bakarrean), 1,2 seg.. Batez beste, bada, 0,11 / 0,12 segundo silabako (Gure neurketa propioak).

53. Esateko (Navarro Tomás 1939: 13): %4 inguruk gaztelaniazko irakurketan. Frantsesezkoan, aldiz, 10 silabatik gora %2,25 inguruk izanen luke soilik. Beste hizkuntza (edo hizkera batzuetan), berriz, aurkitu ahal izango lirateke are 17 silabatik gorako unitateak ere, eta hala moduzkoak izan litezke, esateko, italierazko edo alemanerazko irakurketako esaldi guztien %5 inguru, edo ingelesez %2,25. Irakurketa eta buruz ikasitako testutik kanpo, nahikoa laburragoa da hizkuntza guztietan intonazio unitateen luzera / iraupena. Euskaraz datu zehatzegirik ez daukagun arren, ditugunak ez dira aipatu hizkuntza horien urrutikoak.

iruzkin (definizio estandar bat: Elhuyar, *Hizt. Entz.*, 1993; ik. **predikazio gune**; **galdegai**): «Esakune batean, predikazioaren edukina edo informazio berria biltzen duten elementuek osatutako atala (mintzagaiari kontrajarria).» Guk, *galdegai / iruzkin* kontzeptuen orde-edo darabilgu antzeko esanahietan *predikazio gune* kontzeptua.

isats predikatibo: ik. **gailur / isats prosodiko-intonatibo**.

isats prosodiko-intonatibo: ik. **gailur / isats prosodiko-intonatibo**.

mezu emaila: hiztun eta idazlearen figurak elkartu nahi dituen kontzeptua, esaldi sortaile eta kodetzaile bezala.

mezu hartzaile: irakurle eta entzulearen figurak batean elkartu nahi dituen kontzeptua, esaldi deskodetzaile bezala.

mintzagai (definizio estandar bat: Elhuyar, *Hizt. Entz.*, 1993; ik. **predikazio marko**): «Esakune batean, solasaren unibertsoa edo predikazioa zeri buruzkoa den finkatzen duen atala (iruzkinari kontrajarria).» Guk antzeko esanahian darabilgu *predikazio marko* (PM) kontzeptua.

nukleo: ik. **gailur prosodiko-intonatibo**.

predikazio gune (PG) / predikazio marko (PM): Intonazio-informazio unitate bakoitzak bi balio predikatibo nagusi izan ditzake. Edota:

1. **Predikazio gune** izatea (**PG**) halako unitate baten ondoren esaldia bertan buka litekeenean, eta mezu hartzailea ase utzi testuinguru horretan, predikazioaren muina, osotasuna, jaso balu bezala. *Predikazio gunea* beregaina da esaldian jaso den gunean, eta mezu hartzailearen espektatiba unibertsoa aseko du bere mailan. Esaldiko aditz nagusiak, esaldian agertzekoa baldin bada, agertua behar du dagoeneko unitate horretan bertan edota aurrekoren batean (unitateak ezingo du bestela mezu hartzailea ase). Intonazio-informazio unitate mailako kontzeptu hau darabilgu lan honetan, antzeko *galdegai-iruzkin* kontzeptuak baino erabilgarriagoa delakoan.
 2. **Predikazio marko** soil (**PM**), unitateak marko tematiko edo modal soil bat eraikitzen duenean ondoko unitateak mezu emailak nahi bezala ulertzeko. Mezu hartzailea ezin da unitatearekin ase sentitu, ez du predikazioaren muina, osotasuna jaso duenik sentituko, ez dio espektatiba unibertsoa beteko, eta zain baino ez du utziko, artean esaldi berean derrigor etorri beharko duten unitate berrien; are jasotako unitate bera behar bezala interpretatu ahal izateko. Intonazio-informazio unitate mailako kontzeptu hau darabilgu lan honetan, antzeko *mintzagai*, *tema*, *topiko*-en orde, erabilgarriagoa delakoan.
 - *Predikazio markoak* gradazioak izan ditzake. Bi bereizi ditugu:
 1. **Predikazio marko globala (PMG)**, unitateak, *predikazio gune* ezin izanik ere, esaldiko (edo gune) aditz gobernatzaile nagusia jasotzen duenean (inoiz honen oihartzuna, aditza eliditua bada), eta esaldiko beste hainbat unitate berak sortutako unibertso predikatiboan kokatzen lagundu.
 2. **Predikazio marko partziala, predikazio marko soil (PM)**, esaldiko (edo gune) aditz gobernatzaile nagusia (edo honen oihartzuna, aditza eliditua bada) jasotzen ez duena, eta berak sortutako unibertso predikatiboan bil ezin dezakeenean beste unitaterik.
- Intonazio-informazio unitateen balio predikatiboak ez dira absolutuak, unitateak berez dituenak, baizik eta kokatzen den guneko testu-aurrearen baitakoak. Balio erlatibo, aldagarriak, intonazio-informazio unitatearen kokagunea aldatu orduko esaldian.

predikazio marko (PM): ik. **predikazio gune / predikazio marko.**

predikazio marko global (PMG): ik. **predikazio gune / predikazio marko.**

predikazio marko partzial (PM): ik. **predikazio gune / predikazio marko.**

solas unibertso: ik. **unibertso predikatibo.**

testu-aurre: Maizenik **testuinguruz** hitz egin ohi da, hau definituaz, unitate linguistiko jakin baten inguruan, aurretik edo ondoretik, aurki litekeen hitzezko zein egoerako informazio bildu bezala, delako unitatea egoki interpretatzen lagunduko duena. Gu, testuinguru kontzeptua banatu beharrean sentitu gara: 1. **Testu-aurrea:** unitate linguistiko jakin baten *aurretik emana* den informazio linguistiko edo egoerako bildua; eta 2. **Testu-ondoa**, delako unitate linguistikoaren *ondoretik* ematen den informazio bildua. Prezisia garrantzizkoa. Mezu hartzaileak, entzule edo irakurle, ezin du oinarritu jaso berri duen informazio unitatearen interpretazioa aurretik jaso duen informazioaren gainean baino. Interpretazioa *on-line* da; ez ondoren jasoko duen informazioaren baitakoa, nahiz honek eraman lezakeen inoiz mezuen bigarren interpretazioetara. Lan honetan **testu-aurre** kontzeptua erabili dugu nagusiki, bederen halako prezisia garrantzizkoa iruditu zaigunean.

unibertso predikatibo deitu diogu, diskurtsoaren momentu jakin batean, testu-aurreak, h.d. mezu hartzaileak anartean jaso dituen hitzezko eta egoerako informazioen bilduak, honengan eragingo duen, batetik, usteen bilduari, eta bestetik, uste hauek diskurtsoaren jarraibide posible edo beharrezkoen inguru eragindako espektatibenari (**espektatiba unibertso**).

Bibliografia aipatua

- Armañanzas, E., Díaz Noci, J. eta Meso Ayerdi, K. (1996): *El periodismo electrónico. Información y servicios multimedia en la era del ciberespacio*, Ariel, Bartzelona.
- Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación-Estudio General de Medios (1997): *Macroencuesta a usuarios de Internet*, Madril: Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (URL: <http://www.aimc.es>).
- Agirre, J.M. (1994): "Desoreka sintaktikoak", In *Administrazioa euskaraz*, 6, IVAP, 1994, 16.
- Altube, S. (1919): *De sintaxis euskérica*, Donostia, 1920.
- , (1929): *Erderismos*, Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975.
- , (1956): "Literatur-euskera - Sobre sintaxis vasca", *Euskera*, 3-13.
- , (1956): Villasante, L. "Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca - Estudios de sintaxis vasca", *Euskera*, 14-18.
- Arbelbide, X. (1998): "Itzulpengintzaren ateka eta autobideak", *Hegats*, 19-20, 74-82.
- Aske, J. (1997): *Basque word order and disorder: principles, variation and prospects*, Doktore tesia, Univ. of California, Berkeley.
- Axular, P. (1643): *Gero*, Jakin, Aranzazu, 1976.
- Azkue, R.M. (1897): *Kristinauen ikasbide laburrtua*, Baiona.
- Baddeley, A.D. (1999): *Essentials of Human Memory*, Psychology Press, UK.
- Balota, D.A.; Flores d'arcais, G.B.; Rayner, K. (eds.) (1990): *Comprehension Processes in Reading*, L. Erlbaum, Hillsdale, N.J..
- Beckman, M.E.; J.B. Pierrehumbert (1986): "Intonational structure in Japanese and English", *Phonology Yearbook*, 3, 255-309.
- Boomer, D.S. (1965): "Hesitation and grammatical encoding", *Language and Speech*, 8, 148-158.

- Boomer, D.S. & Dittman, A.T. (1962): "Hesitation pauses and juncture pauses in speech", *Language and Speech*, 5, 215-20.
- Boomer, D.S. & Laver, J. (1968): "Slips of the tongue", *British Journal of Disorders of Communication*, 8, 2-12 (reprinted in Fromkin, V.A. (ed.), 1973, *Speech Errors as Linguistic Evidence*, Mouton, The Hague, 120-31; eta J. Laver, 1991, *The Gift of Speech*, Edinburgh Univ. Press, 1991, 23-35).
- Borges, J.L. (1996): *Obras Completas* (IV tomo), Emecé editores.
- , (1998): *Ipuin hautatuak*, Ibaizabal, Euba - Bizkaia (Itz.: Juan Garzia).
- Cambra, M.; R. Glez. de Viñaspre (1997): "Administrazioko testu zaharrak", *Administrazioa Euskaraz*, 18, Urria, 5.
- Camus, A. (1942): *L'étranger*, Gallimard, 1942, (1989). *El extranjero*, itzulpena B. Del Carril, Alianza Editorial, 1987. Itzulpena J.A. Valente, Alianza Editorial, 1998. *O estrangeiro*, itzulpena V. Arias, Ed. Do Cumio, 1991, Pontevedra. *Der Fremde*, itzulpena U. Aumüller, Rowohlt, 1998, Hamburg. *The Outsider*, itzulpena Joseph Laredo, Penguin, 1983. *L'estrany*, Enciclopedia Catalana, 1994. *O estrangeiro*, itzulpena R. Fernandes, Edição Livros do Brasil, Lisboa. *Lo straniero*, itzulpena A. Zevi, Paravia, Torino, 1997. *Arrotza*. J.M. Agirre euskaratzaile, Herri-Gogoa, Donostia, 1970. J.M. Agirre itzultzaile, Kriselu, 1987. X. Galarreta itzultzaile, 1996, Marjinalia Bilduma.
- Chafe, W. (1994): *Discourse consciousness, and time: The flow and displacement of conscious experience in speaking and writing*, The University of Chicago Press, Chicago.
- Clark, H. (1996): *Using language*, Cambridge Univ. Press, Cambridge, U.K.
- Clark, H.H.; E.V. Clark (1977): *Psychology and Language. An Introduction to psycholinguistics*, Harcourt Brace, New York.
- Coltheart, M. (1987): *The Psychology of Reading. Attention and Performance XII*, L. Erlbaum.
- Cruttenden, A., (1997): *Intonation*, Cambridge Univ. Press, London, 2nd ed. (1st ed. 1986).
- de Vega, M.; F. Cuetos (coord.) (1999): *Psicolingüística del español*, Trotta, Madril.
- Dittman, A.T.; Llewellyn, L.G. (1967): "The phonemic clause as a unit of speech decoding", *Journal of Personality and Social Psychology*, 6, 341-9.
- Elhuyar (1993): *Hiztegi Entziklopedikoa*, Elhuyar.
- Elordieta, G. (1997): "Accent, tone, and intonation in Lekeitio Basque", in F. Martinez & A. Morales-Front (eds.), *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*, Georgetown Univ. Press, Washington D.C., 3-78.
- , (1998): "Intonation in a pitch accent Variety of Basque", *ASJU*, 511-569.
- , (agertzekoa): "Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas", *Actas del I Congreso de Fonética Experimental*, Bartzelona, Univ. de Barcelona.
- , (agertzekoa): "Intonation", in *A Grammar of Basque*, J.I. Hualde (ed.), Mouton de Gruyter, Berlin.
- Elordieta, G. (et al.) (1999): "Another step in the modeling of basque intonation: Bermeo", in *Proceedings of the Workshop on Text, Dialog and Speech*, Pilsen, Czech Republic.
- España, E. (1998): "Defini dezagun geure burua", *Administrazioa euskaraz*, 20, 1998ko apirila, 18-9.
- , (1999): "Aditz deklaratiiboak", *Administrazioa euskaraz*, 24, 1999ko apirila, 18-9.
- , (1999): "Euskal laberintoan barna", *Administrazioa euskaraz*, 25, 24.
- Euskaltzaindia (1987): "Hitz ordena", *Euskal Gramatika lehen urratsak - 1 (Eraskina)*, 19-46.
- Eysenck, M.W.; Keane, M.T. (1995): *Cognitive Psychology*, Psychology Press.

- Fayol, M. (et al.) (1992): *Psychologie cognitive de la lecture*, PUF, Paris.
- Firbas, J. (1992): *Functional sentence perspective in written and spoken communication*, Cambridge Univ. Press, (1995 reprinted).
- Gaminde, I (1997): *Gatikako euskaraz*, Gatikako Gogoz Euskara Taldea.
- Gaminde, I. (eta beste) (1995): "Zeanuriko intonazioaz", *Ele*, 16, 97-121.
- Gaminde, I. (eta beste) (1996): "Euskalfonologiaren didaktikarantz: Intonazioaren azterketa", *Revista de Psicodidáctica*, 1, 121-138.
- Gaminde, I. (eta beste) (1998): "Azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio bereizleez", *Revista de Psicodidáctica*, 6, 79-98.
- Gardner, N. (koord.) (1996): *Ega. 1995 eta 1996ko azterketak*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Garret, M.F. (1980): "Levels of processing in sentence production", in B. Butterworth (ed.), *Language production* (vol. I), Academic Press, Londres.
- , (1990): "Sentence Processing", in Osherson, D.N. y Lasnik, H. (eds.), 1990, *Language: an invitation to cognitive science*, Vol. 1, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- , (1992a): "The Structure of Language Processing: Neuropsychological Evidence", in Gazzaniga (ed.) *Cognitive Neuroscience*, 881-899.
- , (1992b): "Errors and their Relevance for Models of Language Production", in G. Blanken (et al.) (eds.) *Linguistic Disorders and Pathologies*, Walter de Gruyter, 1993, 72-92.
- Gathercole, S.E.; A.D. Baddeley (1993): *Working Memory and Language*, L. Erlbaum, 1995.
- Gernsbacher, M.A. (ed.) (1994): *Handbook of Psycholinguistics*, Academic Press.
- Gosciny, R.; Uderzo (1968): *Asterix aux Jeux Olympiques*, Dargaud. Euskarazko itzulpena J.M. Azurmendi, Elkar. Ingeleseaz, Hodder Dargaud 1976 (1997). Gaztelaniazko itzulpena Jaime Perich, Salvat, 1999.
- Haberlandt, K. (1997): *Cognitive Psychology*, Allyn and Bacon (1st ed. 1994).
- Halliday, M.A.K., (1967): "Notes on transitivity and theme in English", II, *Journal of Linguistics*, 3, 199-244.
- Hidalgo, V. (1991): *Altuberen azterketan*, (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua, orain kontsulta litekeena: <http://www.euskalnet.net/vhidalgo>).
- , (1993): *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*, (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua, orain kontsulta litekeena: <http://www.euskalnet.net/vhidalgo>).
- , (1994a): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean", *Hizpide*, 35, 1996, 39-51.
- , (1994b): "Euskararen hitz ordena librea. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II)", *Hizpide*, 36, 1996, 21-27.
- , (1994c): "Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III)", *Hizpide*, 37, 1996, 23-31.
- , (1994d): *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*, (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua, orain kontsulta litekeena: <http://www.euskalnet.net/vhidalgo>).
- , (1995): "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, SVO?", *FLV*, 70, 401-420.
- , (1996): "Hurbiltze bat euskal hitz ordenaren tradizioari", *FLV*, 71, 21-43.
- , J. Garzia (1997): "Hidalgo vs Altube", *El Correo*, Territorios, 10, 1997-XI-5.
- , J. Garzia (1998): "Ikastea pentsatzen euskaraz", *Administrazioa euskaraz*, 19, 1998 Urtarrila, 19.
- , (1998): "Baina, zer da euskal joskera?", *Administrazioa euskaraz*, 21, 1998ko uztaila, 18-9.
- , (1999a): "Hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboa. Gogoeta historiko zenbaiten berri labur. Antzinatea", *FLV* 82, 431-457.

- , (1999b): “Axular euskal hitzen ordenaren historian”, *Lapurdum IV*, Numéro Spécial 1, *Les lettres basques au temps d’Axular (1600-1650)*. *Euskal literatura Axularren aroan. Actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999)*, 143-170.
- , (2000a): “Hitz ordenaren estatistikak euskaraz”, *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* (agertzekoa).
- , (2000b): “Gogoetak hitzen ordena eta esaldien egitura nformatiboaz, intonazioaren laguntzaz. Begiratu bat nork bere buruaren aurkezpen esaldiei”, (Hitzaldia).
- Hualde, J.I. (1986): “Tone and stress in Basque: a Preliminary Study”, *ASJU* XX-3, 867-896.
- Hualde, J.I.; X. Bilbao (1993): “The prosodic system of the Basque dialect of Getxo: A metrical analysis”, *Linguistics*, 31, 59-85.
- Hualde, J.I.; Elordieta, G.; Elordieta, A. (1993): “Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno”, *ASJU*, 731-749.
- , (1994): *The Basque Dialect of Lekeitio*, Supplements of ASJU, Donostia.
- IVAP/HAEE (1994): “Sintaxia informazioaren zerbitzura”, *Hizkera argiaren bidetik*, IVAP, Eusko Jaurlaritza, 53-4. (Baita ere, geroago in *Argi idazteko bideak*, IVAP, 48-9.
- Jansen, W. (1992): “Acento y entonación en Elorrio”, *ASJU*, 67-109.
- Jun, S.-A.; G. Elordieta (1997): “Intonational structure of Lekeitio Basque”, in *Intonation: Theory, models and applications. Proceedings of an ESCA Workshop*, A. Botinis (et al.) (eds.), Athens, 193-196.
- Kaltzakorta, M. (1997): “Norbaiten edo zerbaiten berri ematen”, *Administrazioa euskaraz*, 15, 16.
- , (1997): “Definizioak ematen”, *Administrazioa euskaraz*, 16, 9.
- Kardaberaz, A. (1761): *Eusqueraren berri onac*, in *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 155-170.
- Ladd, R. (1996): *Intonational Phonology*, Cambridge Univ. Press.
- Lafitte, P. (1944): *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Baiona (2. arg. Bordeaux, 1962; Elkar, Donostia, 1979).
- Laver, J. (1970): “The production of speech”, in J. Lyons (ed.), *New Horizons in Linguistics*, Penguin, New York; *Nuevos horizontes de la lingüística*, Alianza, Madril, 1975, 55-77.
- Lekuona, M. (1921): *Gazteiz’ko Eliz-Barrutirako Kristau-ikasbidea. Gipuzkoa’ko euskeraz. Lenengo maila*, 1932. Gasteiz.
- Levelt, W.J. (1989): *Speaking: From Intention to Articulation*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Medin, D.L.; Ross, B.H. (1997): *Cognitive Psychology*, Harcourt Brace Coll. Publ. (1st ed. 1992).
- Meyer, A.S. (1996): “Lexical Access in Phrase and Sentence Production: results from Picture-Word Interference Experiments”, *Journal of memory and Language*, 35, 477-496.
- Navarro Tomas, T., (1939): “El grupo fónico como unidad melódica”, *Revista de Filología Hispánica*, I, 1, 3-19.
- , (1944): *Manual de entonación española*, New York, 1944. 4^a ed., Guadarrama, 1974, Madril.
- Nespor, M.; Vogel, I. (1986): *Prosodic phonology*, Foris, Dordrecht.
- Osa, E. (1990): “Tonu-multzoak gramatikan”, *Euskera*, XXXV, 1990-1, 151-161.
- Pierrehumbert, J.B.; Beckman, M. (1989): *Japanese Tone Structure*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Pritchett, B.L. (1988): “Garden Path Phenomena and the Grammatical Basis of Language Processing”, *Language*, 64, 539-576.
- Rayner, K.; A. Pollatsek (1989): *The Psychology of Reading*, Prentice-Hall, New Jersey.

- Selkirk, E. (1984): *Phonology and Syntax: the relation between sound and structure*, MIT Press, 1986, Cambridge, Massachusetts.
- , (1995): "Sentence Prosody: Intonation, Stress, and Phrasing", In J.A. Goldsmith (ed.), *The Handbook of Phonological Theory*, Blackwell, Cambridge, Mass., USA / Oxford, UK.
- Singer, M. (1990): *Psychologie of Language. An introduction to Sentence and Discourse Processes*, L. Erlbaum Ass. Publishers, Hillsdale, New Jersey.
- Sternberg, R.J. (1996): *Cognitive Psychology*, Harcourt Brace, Fort Worth.
- Villasante, L. (1956): "Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca. - Estudios de sintaxis vasca", *Euskera*, 14-18.
- , (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*, EFA. Serie Eleizalde (bereziki, "Orden entre la oración principal y la subordinada", eta "Orden de colocación entre las subordinadas de un mismo período" atalak, 58-60).
- , (1979): *Historia de la literatura vasca* (2. arg.), Aranzazu. (Autore desberdinen azalpenetan barreiatutako iruzkinak, bereziki Azkue, Altube eta XX mende honetako hegoaldekoen artean).
- , (1980): *Sintaxis de la oración simple*, EFA. Serie Eleizalde (bereziki, "Ordenación de los elementos en la frase vasca", 227-260).
- Zagar, D. (1992): "L'approche cognitive de la lecture: de l'accès au lexique au calcul syntaxique", In Fayol, M. (et al.), *Psychologie cognitive de la lecture*, PUF, Paris, 15-72.
- Zubimendi J.R.; Esnal, P. (1993): "Joskera", In *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurlaritza, 133-235.